




Garazi Kamio Anduagak
Orube abandonatuak
eleberriaz berba egingo du
hilaren 19an Algortan ▶11

Ander Aldekoa Imaz gazteak
Nabari moda-firma aurkeztu
berri du Madrilen, ehungintza eta
bioteknologia batuz ▶16



hiruka

Uribe Kostako astekaria



5. zenbakia

2015eko
otsailaren 19tik
otsailaren 25a arte

Betiko Ikastolak, 50 urte

Maiatzaren 23an
egingo dute urteurren
ospakizun handia,
ikasturte amaieran. ▶22



AGENDA URIBE KOSTA

Azken aukerak!

Aste akabu honetan
mozorrotzeko aukera izango
duzue Algortako, Astrabuduko
eta Berangoko aratusteetan.
Goza ezazue! ▶12



KULTURA GETXO

Txapeldunen Abra sariketa

ALBEren 35. urteurrenaz
jantziko da bertsolari gazteen
arteko txapelketa, aurreko
irabazleetako batzuk ekarriz.

Bertso-saioa otsailaren 20an, barikua,
egingo dute Abian kultur elkarteak,
afari legea beteta. Bestalde, joan den
abenduan Bizkaiko txapela jantzi os-
tean, otsailaren 23an, astelehena, es-
kainiko diote zorion-ekitaldia Fredi
Paia Ruiz bertsolari algortarrari, udale-
txean eta kultur etxean. ▶11

AGENDA



Eskegi edonon!
Asteko agenda lantokian,
sukaldean, tabernan, kalean...



Begira, zain, itxaroten, zer gertatuko ete

Begira nago, zain, itxaroten. Zer gertatuko ete. Hamabost egun pasa dira, beste bost laguni modura, Espainiako fiskal batek ETako kolaboratzailezat jo eta sei urteko kartzela eskatu deustanetik. Askapenako kide izateagatik. Eta Askapena, Askapeña Bilboko konpartsa eta beste bi elkarte internazionalista ilegalizatze eskatu. Ezinegona eta amorrua, ernegu itzela daukat.

A... ez dakizula Askapena zer dan. Munduko beste herri borrokalariakaz harremanak egin, bisitatu eta bizipen politikoak, proiektuak, gogoak alkarrenganatzen saiatzen dan herri elkar-tea da. Urtean-urtean, ehundaka pertsona doaz Palestinara, Saharara, Galizara, Venezuelara, Kataluniara... hangoa geureganatu eta hemengoak ezagutarazteko. Gero, Euskal Herrian ikusi eta entzunaren testigantza emoten dabe, hitzaldiak, salaketak, kartelak, dokumentalak, eta abar. Dana oso arriskutsu eta zigorgarri.

Beste herrietan, langile eta ikasleen ekimenez, hemen gertatzen denaren testigantza zuzena jasotzen dabe. Hortik arriskua. Horregatik, «dana ETA», herri xehearen abotsa isiltzeko. Fiskalak geuk egindako deabrukeriak izendatzen dituenean, bilerak, hitzaldiak, kartelak, pegatinak, eskribuak, adierazpenak, manifestazioak aipatzen ditu. Horregatik sei urte espetxean. Bufffff. Duela lau urte atxilotu gintuzten, bost egunez inkomunikatu, zazpi hilabetez kartzelaratu, 60.000 bana euro truke askatu, estatu espainoletik irtetea debekatu, eta oraindino, 4 urte gerorago, astero bere epaitegian sinatzera behartu. Ez gara lehenak, ezta azkenak. Jakin gura dot onartzen dozun. Begira nago zer gertatuko, baina elkartasunerako dagoan eskubide naturala defendatuko dot. ◀

Getxo

Fadurako zubia, Gobela ibaiaren «puntu beltza»

Getxoko popularrek Fadura kiroldegia-
ren ondoko zubia zaharberitzeko lanen atzerapena salatu dute.

Azkenaldiko euri-jasa handiek ezinegona sortu zuten Gobela ibaiaren ondoko bizilagunen artean. Alabaina, horren ibilguan prestatutako urak gainezka egiteko eremuei esker, ura ez zen etxebizitzetara heldu.

Eduardo Andrade popularraren esanetan, «Fadurako zubiak gure ibaiaren puntu beltza izaten jarraitzen du», horren altuera eskasak uraren bidea ixten duelako.

Getxoko Udalbatzak, 2012ko martxoan, eta Eusko Jaurlaritzak, 2012ko maiatzean, Fadurako zubia moldatzeko lanak berehala hasteko erreke-
rimenduak egin zizkioten URari. Hala ere, bi urte itxaron behar izan ziren URA horren inguruan mintzatzeko: lanak 2015eko lehenengo hiruhilekoan



Fadurako zubia moldatzeko lanak 2015eko lehenengo hiruhilekoan hasi behar ziren.

hasiko zirela esan zuen. Oraindik ez dira hasi.

Popularrek salaketa egin eta egun gutxira, Getxoko Udalak Uraldietako Informazio Batzorde Bereziaren batzarra deitu zuen otsailaren 18rako. Saio horretan, «Fadura inguruko hobekun-

tza hidraulikorako jarduketaren proiektua» aztertu zuten. Horretan, Gobela ibaiaren egokitzapen hidraulikoaren eta ingurumen-lehengoratzearren jardura aurreratuak jasotzen ditu. Batzarrean URaren ordezkariak ere parte hartu zuten. ◀

Imanol Landa izango da berriro ere EAJren alkategaia

Imanol Landa gaur egungo alkateak Joan den apirilean jaso zuen Getxoko EAJren hiru uri-erakundeen babes-
a; izan ere, beste hautagairik ez zen proposatu batzarrean. Landa Getxoko alkate izendatu zuten 2007an; hala, bere hirugarren agintaldia egiteko aurkeztuko da maiatzeko udal hauteskundeetan. ◀



Auzotar ugarik bisitatu dute Getxo Antzokiko obrak

Guztira 192 auzotarrek bisitatu dute Getxo Antzokiaren obrak, Udalak antolatutako bisita gidatuei esker. Lanak nahiko aurreratuta daude eta aipatutako kultur guneak barne hartuko dituen ekipamenduen profila, edukiera eta gaitasuna aurrez aurre ikusteko aukera eman dute. Udal arduradunek baieztatzen dutenez, bertaratu direnek «eraikineko instalazioen funtzionaltasuna ezagutu dute». Horien arabera,

funtzionaltasun horrek «lehenagoko eta gaurko instalazioen ezaugarriak nabarmen hobetuko ditu, eta arte eszenikoetako diziplina guztietako edozein motatako ikuskizunak egiteko aukera emango du». Instalazioetatik igaro diren auzotarren arabera, eraikinen balio eta erabilera anitza, agertokiko ekipamenduak eta espazioaren azkeneko konfigurazioa dira alde interesgarrienak. ◀

Aurreko urtean baino bisitari gehiago etorri ziren iaz Getxora

Getxoko turismo-bulegoek 33.371 pertsonari arreta eskaini zieten iaz, 2013an baino %13 gehiagori. Horietatik, %71,94 turistak ziren, eta gainontzekoak, eguneko bisitariak, getxoztarrak eta bizkaitarrak. Baliabide turistikoetara egindako bisitek ere hazkunde nabarmena jaso zuten.

Jatorria kontutan hartuta, bisitarien %45 Espainiar Estatutik etorritakoak ziren, batez ere Madril eta Kataluniatik. Atzerititik etorritako turistak bisitari guztien %22 izan ziren. Kasu horretan, gehienak Frantzia, Alemania eta Erresuma Batutik etorritakoak ziren. Oporraldiz oporraldi, Aste Santuan 2.155 turistari eman zieten arreta, eta udan, berriz, 22.022 turista eta bisitari.

Erreserba-zentroaren Zerbitzuak, «Getxo 2014» izeneko programak, 1.750 bezerori eskaini zien arreta, 2013an baino %90 gehiagori. Zerbitzu horiek eskaintzen dituzten enpresen fakturazio orokorra 35.108,47 eurokoa izan zen, 2013an baino %11 gehiago. ◀

Getxo

«Orokorrean hutsune bat dago herrian: formakuntza politikoa»



Iñaki Gonzalo Casal *Kitxu*-k eta Esther Lopezek osatzen dute Giltza, beste hiru kidegaz batera.

Giltza formakuntza-taldea, gaur ikasi bihar irakatsi lelopean, gaur egun dagoen hutsune bat betetzeko sortu da Algortan: formakuntza politikoa bermatzea.

Heziketarako eta formakuntzarako ekitaldiak antolatzeko talde berria sortu dute Algortan: Giltza. Talde horretako kideen esanetan, «jakinduriak iritzia sortzen du».

Zer da Giltza?

Algortan, eta Euskal Herrian oroko-

rrean, ikusi genuen ezker abertzalearen baitan badagoela arazo edo hutsune bat: formakuntza. Gazteek, batez ere, alor ezberdinetan militatzen dute, baina, batzuetan, heziketa politikoa-ren falta sumatzen da. Hori horrela, guk planteatu genuen Algortan horri buelta emateko zer edo zer egitea. Hala, bururatu zitzaigun mota guztie-

tako hitzaldiak ematea, hutsune hori betetzeko ahal den neurrian.

Zeri erantzun nahi diozue formakuntza-talde horregaz?

Bestelako korrante politiko bateko norbaitegaz hitz egiten ari garela, batzuetan ez ditugu argudioak aurre eginge. Guk uste dugu gai izan behar dugula edozein gairi eusteko eta edozein gairen aurrean gure ikuspuntua azalertzeko. Hortaz, gu saiatuko gara baliabideak jartzen edozein unetan gure ikuspuntua defendatu ahal izateko. Gai zehatz batzuen inguruko hitzaldiak egingo ditugu, esaterako, materialismo dialektikoa eta sozialismoa nola osatu den historian zehar, Sobiet Batasunean, Txinan, edo Latinoamerikan azken boladan bultzatu den iraultza Bolibarra nola sortu zen, nola hedatu den eta nola inportatu dezakegun guk Euskal Herrira, gure errealitatera.

Edonork parte har dezake antolatzen dituzuen saioetan?

Bai; gainera, hasieratik hitzaldietan parte hartu dutenen helbide elektronikoa eta izen-abizenak bildu ditugu sare moduko bat osatzeko. Gure ideia da hitzaldiak egin baino lehen, horiei guztiei e-mailez gonbidapenak luzatzea, eta, ahal den neurrian, hitzal-

dietan jorratuko diren gaien inguruko materiala helaraztea, aldez aurretik gaiak landu ahal izateko. Bestalde, hitzaldien berri ematen dugu kartelen bitartez, sare sozialetatik eta *whatsapp* bidez. Hala ere, gure nahia da jendeak ohitura bat hartzea. Horretarako, egun finkoak jarri ditugu gure hitzaldietarako: bi zaturrik behin, 11:30ean, Abian kultur elkartearen.

Zeintzuk gai jorratu dituzue orain arte antolatu dituzuen berbaldietan?

Hilabete daramagu martxan, eta tarte horretan bost ekimen egin ditugu, oso ondo atera direnak. Bataz beste, 20 bat lagun etorri dira horietara. Lehenik eta behin, taldearen aurkezpena egin genuen; horretan jende askok parte hartu zuen, eta guztiek esan zuten beharrezkoa zela mota honetako ekimen bat aurrera eramatea.

Horrez gainera, EH Bilduren proiektu energetiko alternatiboaren inguruan hitzaldi bat antolatu genuen; Fracking Ez Getxoko taldeagaz, haurtuta hidraulikoaren inguruko beste bat; torturaren inguruko erakusketa multimedia bat ere prestatu genuen, 12 egunez ikusgai egon dena. Azkenik, Tortura Egunaren harira, horren inguruko hitzaldi bat egin genuen, testigantzakaz eta bideo emanaldi batez. ◀

otsailaren
26ra arte
eman izena!

TXOTX!

ARMAGINTZA MUSEOA + SAGARDOTEGIA

NOIZ: Otsailak 28, larunbata

NON: Getxo - Eibar - Itziar

PREZIOA: 40€ (museoa + autobusa + sagardotegia)

IZENA EMATEKO: egizugetxo@gmail.com

INFO+ : www.egizu.eus

* egitarau osoa ikusteko sartu [egizu.eus](http://www.egizu.eus)-en!

www.egizu.eus

ANTOLATZAILEAK:

BABESLEAK:

Getxo

Berdintasuna sustatze aldera

Udalak 23.000 euro inguru emango ditu emakumeen parte-hartzea bideratu eta berdintasuna bultzatzeko programa eta proiektuetarako.



Laguntzak Getxoko gizonen eta emakumeen berdintasuna bultzatzeko dira.

Udalak 23.310 euro emango ditu aurten, eremu guztietan emakumeen parte-hartzea bideratzen duten eta udalerriko gizonen eta emakumeen berdintasuna bultzatzen duten programen eta proiektuen diru-laguntzetarako. Horiek eskatzeko epea zabaldu dute jada, eta martxoaren 13ra arte luzatuko dute.

Diru-laguntzak eskatzeko hainbat baldintza bete beharko dira: pertsona fisikoak edo dirua irabazteko asmorik gabeko erakundea izatea eta egoitza soziala udalerrian egotea. Halaber, emakumeen parte-hartzea bideratzen duten eta Getxoko gizonen eta emakumeen berdintasuna bultzatzen duten proiektuak izan behar dute, lehen esan bezala. Gainera, elkarte edo fundazio izaera duten erakundeek Eusko Jaurlaritzako Elkarteen Erregistroan eta Getxoko Erakundearen Udal Erregis-

troan izena emanda eduki behar dute.

Laguntzak honako jardueretarako jaso ahal izango dira: elkartearen funtzionamendu arruntagaz lotutako ekintzetarako; emakumeen elkartearen ohiko programetarako; indarkeriaren prebentziora bideratutako jardueretarako, bereziki, gazteei zuzendutakoetarako; aukera berdintasunez kontzientzia hartzeko egiten diren jardueretarako; estereotipoak eta genero rola gainditzeko ekintzetarako; emakumeen egoera eta lekua eremu guztietan hobetzeko egiten diren jardueretarako; orokorrean emakumeen parte-hartze politiko eta soziala sustatzera bideratutako jardueretarako, bereziki emakume gazte edota migratuen; eta oro har, Getxoko Udaleko Berdintasun Zerbitzuaren jardueraren eremuaren barruan dauden proiektu guztietarako. ◀

Info+: www.getxo.net

Ume txikien sexualitatea ulertzen

Neska-mutil txikien sexualitatea ulertzen saiatzeko hitzaldia egingo du Sendi proiektuak guraso eta hezitzaileentzat. Agurtzane Ormatza Imatz sexologoarekin, jardunaldira bertaraten direnek umeen sexualitatea zelan eraikitzen den ulertu ahal izango dute. Hitzaldia Algortako Izaro kaleko Zubileta ikastetxean izango da, martxoaren 10ean, martitzenean, 17:30etik 19:30era; musutruk. Hala ere, antolatzaileek jakinarazi dutenez, interesatuek aldeztu aurretik eman beharko dute izena.

Nola eraikitzen da ume txikien se-

xualitatea? Zelan bideratzen dute plazer? Galdera horien inguruan berba egingo du Agurtzane Ormatza sexologoak, martxoaren 10ean.

Halaber, neska-mutil txikiek sexu-identitatea nola eraikitzen duten ere azalduko du. Horrez gainera, umeei zelan lagundu eta umearen sexualitatea garatzen errazteko gurasoek eta hezitzaileek zer egin dezaketen izango du berbabide Agurtzane Ormatzak. ◀

Info+: www.egizu.org
Harremanetarako: sendigetxo@yahoo.com
685 732 963

Indar errepresiboak kanporatzeko mugimendu irekia martxan da Algortan

Euskal Herrian, eta, zehazki, Algortan «indar polizial errepresiboak» kanporatzeko mugimendu irekia jarri dute martxan: Algortatik Hanka. Azaltzen dutenez, Guardia Zibila, Espainiako Polizia eta Ertzaintzaren «botere eta zigorgabetasuna» ahuldu nahi dute, horien «errepresioa» azaleratuz. «Gaur egun, hainbeste urtean zehar pairatutako errepresio sistematiko eta bortitzak normalizat jotzera eramán gaitu». Horixe da mugimenduaren lehenengo oztupoa. Hala, aurtengo urte politikoaren helburua normalizazio horregaz apurtzea izango



da, «indar errepresiboen eztabaida gizarteratzeko». Martxotik aurrera hainbat dinamika jarriko dituzte martxan. Lehenengoa martxoaren 6an egingo dute, mugimenduaren aurkezpenagaz, Abian kultur elkartearekin. ◀

Getxoko Independienteak mugimendu ireki baten bila

Getxoko Independienteak herritarrek sortutako mugimendua bultzatu nahi du Udalean «alternatiba» bat izateko. Oraindik ere, ez dute maiatzeko udal hauteskundeetarako hautagairik aurkeztu; hala ere, azaldu dutenez, «baliteke zer edo zer sortzea horietara aurkezteko»; izan ere, asanbladetan aukera hori aztertzen ari dira.

Aipatutako taldea 2011ko hauteskundeetara aurkeztu zen, eta baieztatu

du dutenez, euren helburua ez da herritarren «zuzendari gisa» jardutea, baizik eta «herritarren marea zabal eta libre» bat sortzea udalerrira osoan zehar; «getxoztarron eskubideak garrantzitsuegiak dira, horiekaz negozioak egin nahi dituzten alderdien esku uzteko», azaltzen dute.

Gaur egun asanbladak egiten ari dira, non auzokideen elkarteek eta taldeek parte hartzen duten. ◀

GetxoGas

Txartel hau
aurkezten baduzu
**%50eko
deskontua**
izango duzu zure
autoaren garbiketan

Getxo eta Berango artean
Tf. 94 430 15 00
(15 eguneko epemuga)

**COMERCIAL
de LIMPIEZA
VILLAR S.A.**

Harritzeko moduko kalitatea!

- Garbiketa orokorrak
- Mantentze garbiketa
- Garbiketa industrial
- Itsasontzi garbiketa
- Ospital garbiketa
- Elikagai Industriak igienizatzea, garbitzea eta desinfektatzea
- Legionellaren kontrako tratamenduak
- Airestatze tutuak, aire girotuak eta hodi industrialak garbitzea
- Lan osogarria

Andres Isasi 11, Behe ezkerria (Bilbo)
Tf. 94 470 06 69 e-posta: bilbao@limpiezasvillar.com

Erandio


Hiri Hondakin Solidoen bilketa 2014an



BESTELAKOAK	% 0,13	↓
ORGANIKOA	% 0,61	↑
BERRERABILGARRIAK	% 0,81	↑
NEURRI HANDIKOAK	% 2,36	↑
ONTZIAK	% 3,01	↓
BEIRA	% 3,45*	=
PAPERA	% 4,00	↓
BEREIZI GABEKO ZABORRA	% 85,63	↓

*2013ko datua

Bilketa selektiboa urtez urte



Bizkaiko batezbestekoa:
%39,03 (2013)
%38,58 (2012)

*Beiraren datua 2013koa da

DATUAK: ERANDIOKO UDALA/BIZKAIKO FORU ALDUNDIA

Organikoa bereizten hobetu arren zabor poltsa ia ez da mehetu

Hondakin organikoen bilketa selektiboa 2013an abiatu zuen Erandioko Udalak. Bosgarren edukiontzian batutakoa 48 tonatik 58ra pasa zen iaz, erandioztar gehiagok birziklatzeko ardura hartuta. Halere, udalerria urrun dago EAE eta Bizkai mailako praktika eta helburuetatik. Jaurlaritzak 2010erako hondakin guztien %35 selektiboki batzea agindu zuen. Gaur egun, Erandio ez da erdira heltzen.

Azken urteotan, Erandio zenbait pauso ematen dabil Hiri Hondakin Solidoen (HHS) afera konpontzeko bidean. Nabarmenena da lau urtetik hona zabor gutxiago sortzen duela, izan krisi ekonomiakoaren eraginez, izan herriarren kontzientzia ekologikoagatik. Horrela, 2011tik hona, 10 mila tona pasatxotik 9,5era jaitsi dira. Horregaz batera, aipagarria da 2013an abiatutako bosgarren edukiontzia lehenengo fruituak ematen hasia dela, nahiz eta oso apalak iruditu masa osoagaz alderatuta, zehazki %0,61.

Udalak emandako datuen arabera, dagoeneko 1.061 familiak parte hartzen dute zabor organikoaren aparteko bilketan. Erandioztar horiek 2014an bosgarren edukiontzi marroia giltzaz ireki –77k galdu zuten eta berria eman zaie–, eta bertan utzi zituzten kozinatu gabeko jakien, landareen eta beste gai organikoen hondakinak.

Dagokion poltsa erabili beharra

Guztira, ia 60 tona zabor batu zen iaz, 160 kilo eguneko, konpost bihur daitekeena. Udalak horri buruzko datu bi eman ditu berriki: 59.220 kilo, pren-

tsa-ohar batean, eta 58,4 tona, 2011tik 2014ra bitarteko zaborren azterketa kuantitatibo batean. Aldea ez da handia; uraren baporizazioagaz lotura izan lezake. Bilketan inplikaturako sendiei poltsa konpostgarri gehiago eskaini zieten azaroan eta abenduan. Horietatik 478k batu zituzten. Ez da kontu xelebrea. Izan ere, 2013ko apirilean zabor organikoa gaikako bilketan sartu zutenean, Itziar Coba Ingurumen zinegotziak azpimarratu zuen birziklatzeko kit-ean emandako poltsak besterik ez zirela erabili behar, «edukiontzian utzitako materia denaren

birziklapena arriskuan ez» jartzeko. Orduan, 623 auzokide, 18 fruta-denda eta sei supermerkatu hasi ziren urratsak ematen. Lehenengo hiru astean soilik, 4,9 tona bereizi zituzten. Egund, 25 sendi gehiagok bilketa selektiboa egin ahal izateko interesa agertu du. Udalak gogoratu duenez, «arrakasta hiritarren parte-hartzearen arabera izango» da, eta auzotar kontzientziatu horien ekarpena eskertu du. Haatik, gaikako bilketa iaztik %0,33 baino ez da hobetu. Martxa horretan, zero zaborrera heltzeko 259 urte eta sei hilabete beharko lituzke Erandiok. ◀

Enpleguaren bidez integrazioa sustatu du Behargintzak

Erandioko Behargintzak, Integrando fundazioagaz batera, programa bat martxan jarri du urritasunen bat duten pertsonak enpleguaren bidez integratzeko. Egitasmoan, urritasunen bat duten hiru erandioztar eta herriko begirale bat lan egiten dabilta. Programa abenduan abiatu zuten eta apirilaren 9an amaituko da. Horregaz batera, Behargintzak udalerrian ibilbide turistikoak egiteko aukera eman-

go die sendiei. Ibilbideak seme-alaben adinaren arabera sailkatu dituzte. Horrezkero, Lutexana 8 eta 10 urte bitarteko umeen jomuga izango da, hilaren 28an; Altxaga 5 eta 13 urte arteko umeek bisitatu ahal izango dute, martxoaren 14an; eta Astrabudua martxoaren 28an ezagutu ahal izango dute 5-7 eta 11-13 urte bitartekoek. Bisitak 10:30ean edo 12:00etan dira. ◀

Info+: 944 175 616

Fracking-ari buruzko hitzaldia egunean Erandiogoikoan

Eguenean Fracking Ez taldea gasa eustiatzeko haustura hidraulikoaz mintzatuko da Erandiogoikoko gizarte etxean, 19:30ean. Erandiok bi fracking eremu ditu gertu: Geminis, iparrean, Industria Ministerioak baimendua; eta Lurra, ekialdean, Jaurlaritzari eskatutako baimenaren zain. Pasa den ekainean EAJk, PSE-EEK eta PPK atzera bota zuten EH Bilduk aurkeztu zuen fracking-aren aurkako mozioa. ◀



Patxi Lopez Texasen Fracking-a ezagutzen. IREKIA

Leioa

Esnatu Leioa herri-hautagaitzak parte hartuko du maiatzaren 24ko udal hauteskundeetan

Hurrengo batzar irekia otsailaren 24an egingo dute 19:00etan Lamiakoko kultur etxean. Erabaki guztiek asanblada bidez hartuko dituzte, aurreratu dutenez



Otsailaren 17an egindako batzar irekian erabaki zuten herri hautagaitzari Esnatu Leioa deitzea.

Kultur eta kirolerako diru-laguntzak eskatzerik badago

Udalaren Kirol eta Kultura Sailak urtero ematen dituen diru-laguntzak esleitzeko deialdia zabaldu du jada. Interesatuta dauden elkarteek haien eskabidea Kultur Leioan edo Sakoneta kiroldegian aurkeztu beharko dute, martxoaren 16a da azken eguna. Deialdiaren helburua da udalerriko elkarteek egiten dituzten kultura, kirol eta aisialdi arloko jardueretarako ohiko diru-laguntzak ezartzea. Deialdian sar daitezke 2015ean zehar egindako proiektuak. Kultura eta aisialdian 22.642,66 banatuko ditu Udalak, eta kiroleran, 67.231,80 euro. ◀

info +: www.leioa.net

Erosketak etxean doan jaso ditzakete herritar guztiek

Herriko dendetara joaten direnek Herosketak etxean jasotzeko doako zerbitzua erabiltzera deitu ditu Udalak leioaztar guztiak. «Guztion eskura dago eta udalerriko saltokien biziberritze ekonomikoan laguntzen du», adierazi dute tokiko arduradunek. Behargintzak bultzatutako Merkataritza Biziberritzeko Plan Nagusian zehaztutako zerbitzuetako bat da erosketak etxera eraman ahal izatea, doan. Martxan jartzeko, Udalak, langabezian denbora luzea zeramaten pertsonak kontratatzeaz gain, ingurumena errespetatzen duen sistema hautatu du: furgoneta elektrikoa. ◀

Ahal Dugu (Podemos) alderdiak otsailaren 10eko batzar irekirako deialdia zabaldu arren, maiatzaren 24ko udal hauteskundeetara aurkeztuko duten herri-hautagaitza alderdi horretakoa ez dela izango adierazi dute Pablo Iglesias buru duen mugimenduaren ingurukoek. «Leioa aldatzeko prest dauden herritar guztion izango da», Ruben Belandia Leioako Ahal Duguko kideak zehaztu duenez. Hilaren 17ko bileran, Podemosek ez zuen protagonismo berezirik izan. Azken asanblada horretan erabaki zituzten herri-hautagaitzaren izena (Esnatu Leioa) eta oinarritzko planteamenduak onartu zituzten. Hurrengo batzarra otsailaren 24an egingo dute 19:00etan Lamiakoko kultur etxean.

Ahal Duguk ez du udal hauteskundeetan parte hartuko, baina prest dago tokian tokiko biztanle eta eragi-

leekin hautagaitza herritarrek bultzatzeko. Uribe Kostan ezagutzera eman duten lehenengoa da Leioakoa.

Lehenengo batzar irekian parte hartu zuten leioaztarrek Udalean boterean betidanik egon den EAJren kudeaketa eredua gaitzetsi zuten. Pinosolo auzia aipagai, «Leioa ustelkeriaren mapan kokatu izanaz gain, kudeaketa iluna, herritarren parte-hartze falta eta auzo gehienak baztertuta egotea salatu zuten», azaldu du Belandiak. Langabeziarekiko kezka ere nabarmena izan zen, 2.121 langabetu baitaude udalerrian.

Hala, herri-hautagaitza bultzatzea erabaki dute, Hautesleen Elkarteak izatera erabiliz, «hori baita legean aurreikusten den figura juridikoa, alderdi politikoen menpe ez dagoen herritarren hautagaitza garatzeko». Erabaki guztiak asanbladan hartuko dira, aurreratu dutenez. ◀



Pinosoloko igerilekuak. LEIOAKO UDALA

Loizagak Pinosoloren gaineko azalpenak ematea ez dute onartu Eusko Legebiltzarrean

Pinosolo kiroldegiko auziari buruz, Ingurumen eta Lurralde Politika batzordearen aurrean Leioako Kirol zinegotzi izandako Jon Loizaga agerraldia egitea eskatuta zeukan EH Bildu taldeak Eusko Legebiltzarrean. Otsailaren 11ko saioan, osterara, eskaera atzera botatzea erabaki zuten, EAJk, PSE-EEk eta PPK aurka bozkaturik. Hala, «elkarren artean euren miseriak eskutatzea» egotzi die Igor Lopez de Munain legebiltzarkide ezkertiarrek hiru alderdiei. Bere berbetan, «EAJ, PSE eta PPK gaitasuna dute adosta-

sunetara heltzeko, gardentasuna ekiditeko politika egiterako orduan. Argi geratu da edozein ikerketa oztopatuko dutela».

Pinosoloren gaineko ikerketa-batzordeak «ustelkeria zantzu garbiak» azaleratu zituen. Metro Bilbaoko zuzendari Eneko Arruebarrena, hau da, Leioako alkate ohia, eta Jon Loizaga Kirol zinegotzi izandakoa lotzen ditu irregulartasunekin. Orain aste batzuk izandako elurteek Arruebarrenaren agerraldia atzeratzea ekarri zuten. Daberririk ez dute ipini oraindino. ◀

Kalitatezko irakaskuntza euskaraz

BETIKO IKASTOLA

0-16 urte bitartean kalitatezko hezkuntza euskaraz.
Ingelesa 4 urtetik. Frantsesa DBHn.
Zerbitzu ugari: autobusa, jantokia, merienda, zaintza.
Eskolaz kanpoko aktibitate ugari.
Ikastolen Elkarteko Leioako Ikastola bakarra.

Deitu eta informa zaitez: Tlf. 94 464 23 64 - 94 464 33 07

Artaza auzoa 84 (LEIOA)
info@betikoikastola.net www.betikoikastola.net

Sopela



Uribe Kostako Ikasle Helduen elkarteko kideak, Sopelako Helduen Ikastetxearen aurrean

«Ikasle gehienok eskola utzi beharko dugu»

Helduen Hezkuntzako Ikastetxeetan hainbat murrizketa ezarriko direla salatu dute Isabel Perez eta Celia Morales sopeloztarrek. Euren arabera, Eusko Jaurlaritzaren helburua kostuak murriztea da, ikasle eta irakasleen iritzia kontuan hartu barik.

Jaurlaritzak Helduen Hezkuntzako Ikastetxeetan bultzatuko duen erreformak hautsak harrotu ditu Sopelan. Isabel Perez eta Celia Morales sopeloztarrek, Uribe Kostako Ikasle Helduen presidentea eta idazkaria, hurrenez hurren, oso kritiko agertu dira «murrizketa» hauekaz.

Zertan datza beren-beregi helduen hezkuntzari dagokion erreforma hau? Irailean, urtero legeaz, eskolan matematikula egin genuen, eta, printzipioz, ez zegoen inolako aldaketarik. Baina urriaren 30ean, bat-batean, jakina-

razi ziguten hainbat aldaketa egongo zirela. Garrantzitsuena honakoa da: ikasketak burutzeko muga bat ezarriko dute. Urte bi izango dituzu ikastaro guztiak egiteko, eta, horren ostean, eskola utzi beharko duzu.

Orain arte hori ez da izan eskolaren filosofia, ezta?

Ez, eskolan formakuntza iraunkorra bultzatu da. Hau da, nagusiek eten barik formatzeko aukera izan dugu: informatika, euskara, ingelesa, eta abar. Orain, oster, eskola-graduatu ateratzea izango da eskolaren zere-

gin bakarra. Eten barik ikasten jarraitu gura dugunok ezin izango dugu eskolan jarraitu, urte biren ostean utzi beharko dugu, teoriarik bi horietan titulua lortu behar duzula. Gu ez gaude ados horregaz, aktibo jarraitu gura dugulako, gure formakuntza lantzen. Baina erreformagaz eskola uztera behartuko gaituzte, kostuak gutxitu gura dituztelako. Eskolara ikasle gutxiago joaten bagara, irakasle gutxiago ordaindu beharko dituzte.

Ikasle gehienek helburu eta egiteko nagusia, gaur egun, ez da eskola-gra-

duatuaren titulua eskuratzea, ezta?

Ez, gaur egun 233 ikasle gaude, eta 40 bat izango dira eskola-graduatu ateratzeko asmoa dutenak. Ikasleak oso haserre daude, eta irakasleak, harrituta.

Urte biko muga izango da erreformak bultzatuko duen aldaketa bakarra?

Ez, hasteko, ikasturtea zati bitan banatu dute: irailetik urtarrilera arte, eta otsailetik ekainera arte. Bestalde, aurrerantzean azterketak egiten hasiko dira, mailaz igotzen zarela ziurtatzeko. Asistentzia ere kontrolatzen hasiko dira, baina horrek, gure ustez, ez du zentzurik. Helduok, beraz, ez dugu aukerarik izango gura ditugun ikasgaiak hautatzeko. Gainera, aurtengo proiektu berri batez lanean hasi gara, eta erreformagaz, bertan behera utzi beharko dugu.

Zertan datza proiektu hori?

Senidetze-proiektu bat abiatu genuen Estatuko beste eskola batzuekin: Tenerife eta Sevillako eskola birekin. «Bizitzaren istorioak» deitzen da, eta ikasle bakoitzaren bizipenak ezagutarazi gura genituen. Horrez gain, Euskal Herria eta gure kultura ere ezagutzera eman gura genuen. Guztiz kontraesankorra da Eusko Jaurlaritzaren jarrera, diru-laguntza eman zigulako proiektua gauzatzeko, baina orain ez digute aukerarik emango berri burutzeko.

Aipatutako erreforma honi aurre egiteko zelanbaiteko ekimenik abiatuko duzue?

Momentuz gure helburu nagusia murrizketa hauen nondik norakoak gizaritari plazaratzea da. Horretarako, hedabideakaz harremanetan jartzen hasi gara. Horrez gain, Sopelako Udaleri ere gai honen inguruan bere iritzia ematea eta inplikatzeko eskatu diogu. Udal agintariek esan digutenez, hurrengo udal bilkuran landuko dute gaia, mozio baten bidez. ◀



Hautzaindegitik batxilergora arteko eskaintza

Gatzarriñe bidea 47, Sopela
Tfnoa.: 94 676 02 66 / 689 01 04 28
info@anderdeuna.net
www.anderdeunaikastola.net



zaindu
Esku Terapia Zentrua
Osteopatia - fisioterapia
Ane Nafarrate Martin
Doctor Landa 4, Sopela
Telf.: 946026779

DIDAK
hamilton
IDIOMAS
Ingelesa, Frantsesa eta Alemana
- Taldeak, enpresak eta partikularrak
- Eskolaz kanpoko ekintzak
- Maila guztiak
- Ingelesa 3 urtetik aurrera
- Talde txikiak
Ingalaterran egonaldiak
Dr. Landa 6 eta Iberre 9 / 48600 SOPELA
TE: 94 676 30 12
info@didakhilton.com

Sopela

Hondakin-batzea, aztergai

Sopelako Udalak hondakinak batzeko sistema ezberdinak aztertuko ditu txosten baten bidez, bosgarren edukiontzia ez duelako udalerriko birziklatze-tasa handitzea lortu.



Sopelako Hondakinen Kontseiluak urte bi daramatza hondakinen inguruko lanketaz.

Kuadrillak sagardotegira eta eskiatzera joango dira

Sopelako kuadrillek irteera bi prestatu dituzte martxorako. Hilaren 7an Hernaniko sagardotegi batera egingo dute txangoa. Goizeko 12:00etan autobusez Sopelatik irten, eta bazkaldu ostean, parranda egingo dute Hernanin 03:00ak arte. Prezioa 45 eurokoa izango da, eta parte hartzeko ezinbestekoa izango da alde zurretik 670 057 533 telefono-zenbakian izena

ematea. Martxoaren 13tik 15era, berriz, asteburu osoko plana prestatu dute: Luz Ardidenera eskiatzera joango dira. Autobusa 13an irtengo da 20:00etan Sopelatik, eta buelta, 15ean, 22:00etan izango da. Kasu honetan, prezioa 128 eurokoa izango da, segurua barne. Izena emateko Sopelako Carrefour Bidaia agentziara joan zaitezke. ◀

Info+: sopekoor@gmail.com

Barrika

EAJk badu alkategai berria: Roberto Muñoz

Hurrengo hauteskundeetarako erleboa hartuko dio Roberto Muñozek Jose Madariaga egungo alkategari, jeltzaleen hautagai gisa. EAJren Uri Buru Batzarrak aukeratu du, gehiengo osoz, barne-hauteskundeetan aurkeztutako hautagai bakarra izan baita. Muñozek 45 urte ditu, Psikologian lizentziatua da eta esperientzia du udal esparruan; izan ere, 2003an eta 2007an zinegotzi aukeratu zuten, Jose Maria eta Juan Jose Ezpeleta alkateakaz, hurrenez hurren. Aitortzen duenez, kudeaketa izango da bere oinarrietako bat. Halaber, bere ustez, herritar guztien eguneroko bizitza



Roberto Muñoz barrikoztarra. © EAJ

hobetzeko egitasmoa garatzea «ezinbestekoa» da, «lantaldearen laguntasunagaz, soluzioak emango dizkiegu herritarren arazoei». ◀

Familiarteko yoga akrobatiko ikastaroa hilaren 28an

Seme-alabakaz yoga akrobatikoa egiteko ikastaroa antolatu du Luz de Barrika taldeak otsailaren 28rako, zapatua. Hitzordua 11:00etan jarri dute, eta 12:30era arte luzatuko da, 15 euroren truke. Interesatuak alde zurretik eman beharko dute izena. Lucia Sanchez irakasleagaz, bertaratutakoek 2 eta 6 urte arteko seme-alabakaz yoga egiten ikasiko dute, akrobaziak,

masajeak eta erlaxazioaren munduan murgilduz. Antolatzaileek azaltzen dutenez, «abesten eta barrez baso animatu batean murgilduko gara, gure barneko naturagaz eta umeakaz bat eginez». Yoga akrobatikoa gorputzaren malgutasuna, indarra eta oreka neurtzeko baliagarria da, arnasketa egokia erabilita. ◀

Harremanetarako: 622 839 611 / 676 793 064



Ametsak elkartuko ditu Sopelako Gure Esku Dago taldeak otsailaren 20an, zapatuan, 13:00etatik aurrera. Sopeloztarrak udaletxe plazan elkartuko dira, eta aurtengo ekimeneko koloretako oihal-zatiak eskuan dituztela, ekitaldixoa egingo dute herritar «jostunen» laguntzagaz.

Gorliz



Auzotarrek euren etxebizitzetako frankismoko plakak kendu dituzte.

Sinbologia frankista kaletik kanpo

Daborduko ez da Francoren garai-ko plakarik ikusiko Gorlizko kaletan, ezta etxebizitzetako atarietan ere; izan ere, auzotar guztiek gelditzen ziren iraganeko Etxebizitzaren Ministerioaren ikur falangista guztiak kendu dituzte. Udalak 2013an abiarazi zituen sinbolo frankistak udalerritik kentzeko lanak, eta hilabete askoren buruan, auzotarrek euren etxebizitzetatik kendu dituzte plakak; guztira 30 ikur inguru kendu dituzte.

Arantza Etxebarria alkateak sinatutako hainbat gutun helarazi zizkien etxebizitzaren jabeei Udalak; horietan plaka frankistak kentzeko gomendioa eman zuen; «Udal honetan sufrimendua eta mina sor ditzaketen iraganeko garai politikoen edozein aztarna ezabatzeko interes berezia dago». Ha-

laber, auzotarren komunitateek ikurrak kentzeko zailtasunak izanez gero, Udalak lan horiek bere gain hartzeko prestasuna agertzen zuen. Hala, urtebete baino gehiagoren ostean, Gorlizko auzokideek, apurka-apurka, sinbologia frankista zeramaten ikur guztiak kendu dituzte, frankismoa kaletik ezabatzeko pauso berria emanez.

Francoren garaian derrigorrezkoa zen eraikitako etxebizitza guztietan plaka horiek ipintzea, administrazio frankistaren kontrolaren ikur legez. Era berean, horiek Francoren propaganda ofiziala errazten zuten.

Horrenbestez, adierazi dutenez, Asier Garcia zinegotziak Eusko Jaurlaritzako Segurtasun Sailari jakinaraziodio ikur frankista guztiak kendu dituztela. ◀

Familiarteko Berbalagun saioen ordua aldatu dute

Familiarteko Berbalagun egitasmoak ordua aldatu duela jakinarazi du Gorlizko ikastetxeko IGEk. Hala, saioak 11:30etik 13:00etara izango dira aurrerantzean, kiroldegiko estalpeko pabiloian. Gogoratu, hurrengo hitzorduak ondorengoak izango direla: otsailaren 22an, martxoaren 22an, apirilaren 26an, maiatzaren 31n eta ekainaren 21ean.

Egitasmoa abiatu zenetik, orain dela hiru hilabete, hainbat joko eta tailer egin dituzte, monitore baten laguntzagaz. Gainera, Bilboko Itsas Museo-
ra eta Gorlizko itsasargira txangoak egin dituzte. Halaber, antolatzaileek jakinarazi dutenez, denbora tarte horretan talde eta giro dibertigarria sortu dute, familia eta lagunaren artean euskaraz jarduteko eta familia arteko eskolaz kanpoko ekintzak bultzatzeko. ◀

info+: ampagorliz.blogspot.com
berbalagunampagorliz@gmail.com

Zigorren inguruko ikastaroa egingo dute kultur etxean

Otsailaren 19an, eguenean, «Ez sariak, ez zigorrak: ondorioak» izenburuko ikastaro-jardunaldia egingo dute Krutzeta kaleko kultur etxean. Hitzordua arratsaldeko 18:30ean ipini dute, eta edonork parte hartu ahal izango du saioan, sarrera doakoa izango da. ◀

Harremanetarako: 946 774 000
gortiz@gortiz.net



Belena usaina

DAVID CRESTELO DOMINGUEZ
Plentziarra

Plentziabarometroa

UK-ko 263. zenbakian, azkean, lerro batzuk idazteko zortea edo pribilegioa izan nuen. Eta orain Hirukan errepikatuko dut. Akzio mekanikoa dela esan dezakegu, azken finean, idaztea besterik ez da. Baina lehen UKn eta orain Hirukan idazteak beti sentsazio berriak sortarazi dizkit. Linternarekin margolanak aurkitzen dituenen, edo brotxarekin lur gramo batzuk mugituz femur bat lurpetik ateratzen duenean arkeologo batek sentitzen duena bizi dut. Tira, orgia bat, txikia nire kasuan, baina gustatzen zait eta errespetua ematen dit.

Hori argituta, orain gaia aukeratzea tokatzen zait. Astekariaren lehenengo lau zenbakiak irakurtzeko parada izan dugu eta gertuko iritzia zein den jakitea erabaki dut. Gainera, inauterietan gaudela aprobetxatuz, kazetari jantziko naiz, libreta eta boligrafoagaz.

‘UK nahiago dut... ikusteko erraza zelako’. Ikusteko edo irakurtzeko? ‘Ez, argazkiak’. Bigarrenak, berdin: ‘argazki zaharrak, galdutako eraikinak edo lekuak, orain gehiena testua da eta’. Hauek biak erdaldunak dira. Beste batek astekaria aukeratzen du, maiztasunagatik. Azken lagunak esaten dit lehen bata eta orain bestea: biak. Euskaraz sustatzen da eta inguruko berriei buruz irakurtzen du, horri garrantzia ematen diola. Eta webgunea? ‘A! Ez dut ezagutzen!’

Datuak errealak izanda, iritzi hauek Euskobarometroa hartzen den seriotasunarekin irakurri behar dira. Nik, behintzat, ez dut aukera galduko zuek ekoizten duzen astekari serioa eta zabal irakurtzeko. ◀

Plentzia

EAJk Elixabete Uribarri berretsi du alkategai

Plentziako jeltzaleek Elixabete Uribarri berretsi dute alkatetzarako hautagai. Abokatua lanbidez, 8oko hamarkadatik dabil EAJn; hainbat barne-kargu izan ditu, barbarako: Uri Batzarreko Idazkaria eta Herrialde Batzarraren ahalbidea. Gaur egun hiribilduko zinegotzi jeltzalea da. ◀



Jostunak lanaren aurkezpena Goñi Portalean

Gorlizko eta Plentziako Gure Esku Dago taldeak *Jostunak* dokumentala proiektatuko du otsailaren 20an, barikuan, Goñi Portalean. Emanaldirako hitzordua 19:00etan ipini dute, eta sarrera debalde da. Filmak erabakitze eskubidearen inguruan hausnartzeko aukera eskaintzen du. ◀

SARTU GURE
WEB BERRIAN
www.cianoplan.es
902 103 763

kartelgintza



inprimategia



kopisteria



Urduliz

Umeen begiak erabilita Elortza eskolara oinez lasai joatea gura dute

Pasa den azarotik, egitasmo parte-hartzailean murgilduta daude urduliztarrek. Elortza eskolako neska-mutilen ibilbideak aitzakia hartuta, herria hobetzeari ekin diote.



Gaur egun ume eta gaztetxo gehienak gurasoakaz doaz eskolara. © ORTZADAR SL

Eskolara Oinez izeneko programa «herri mailakoa» da, azaltzen du Pilar Silva egitasmoaren koordinatzaileak. Udalak eta Mankomunitateak azpikontratatuak Ortzadar SL enpresan behargina izanik, berari dagokio kontaktua izatea erakundekaz, Elortza ikastetxeko zuzendaritzagaz, bertako Ikasleen Guraso Elkarteagaz (IGE), herriko elkarteakaz eta oro har, auzokideakaz.

Ekimenaren helburuak argi ditu: «alde batetik, autoz egiten diren bidaia murritztea, bai ingurumenagatik bai osasunagatik, umeak osasuntsu hazi daitezen. Beste aldetik, helburu garrantzitsuagoa dago: neska-mutilen autonomia zabaltzea».

«Ohituta daude gurasoakaz, autoz joan-etorrian ibiltzen, gure zain daude guk eraman ditzagun. Bultzatu gura duguna da beraiei kabuz eskolara joateko ahalmen hori garatzea», gaineratzen du Silvak. Horretarako, beharrezkotzat jotzen du ibilbidearen segurtasunaz hausnartzea: eskolara «bide hori gaztetxoentzat izango baita, abenturak bizitzeko; horretan ere asko ikasiko dute, autonomia zabaltzeagaz batera». Bederatzi urtetik gorako neska-mutilek ikastetxera oinez ala bizkiletaz eta bakarrik edo lagunakaz joan nahi duten lasai erabaki ahal izan dezaten, alegia.

Bestalde, proiektua aurkeztu ziotenetik gustukoa izan du Laura Fe-

rrero IGEko kideak. Elortzan ikasten duen hiru urteko bere umea ere pozik agertu da ekimenagaz, eta bere iritzia eman du, zentroaren irisgarritasuna hobetze aldera. Otsailaren 3an abiatu zuten gurasoen lantaldean dabil Ferrero, etxerako hainbat lan hartuta: hobetu ahal direnak zerrendatzea, txarto dagoenari argazkiak ateratzea eta hurrengo faseetan parte-hartzea, besteak beste. Oraingoz, lehenengo puntu beltza atzeman dute: eskolaren aurrean dauden edukiontzia, umeei datozen autoak ikusten uzten ez dietenak. Apirilera espero dute ibilbidearen proba pilotoak egitea.

Silvaren aburuz, oraingoz ekimena aurrera atera eta kontaktuak besterik ez dute egin, fase honetan ibilbideko guztien iritzia jaso eta ageriko trabak identifikatu nahi dituzte eta. Horretarako, Francesco Tonucci pedagogo italiar ospetsuaren teknika erabiltzen dute: umeen begiradaz ibiltzea eta perspektiba horretatik ingurua era ezberdin batean ikustea; emaitzak guztientzat baliagarriak izango dira, gainera. Tonucci izan da Leioako Umeen Hiriaren aitabitxia; bertako Eskolara Lagunekaz egitasmoa izan da, hain zuzen, Umeen Hiriaren abiapuntua.

Josemari Gondra bigarren alkateordeak argi dauka asmatu egin zutela proiektua Urdulizera ekartzean. Aurretik, ibilbide bio-osasungarria jarri zuten martxan. ◀

Into the woods filma emango dute, zapatuan, kultur etxean

Zapatuan, hilak 21, Walt Disney Zekoizpen-etxeko *Into the woods* filma proiektatuko dute Urdulizko kultur etxean, arratsaldean, 18:00etatik aurrera. Rob Marshall-ek zuzenduta, *Into the woods* ez dago gomendatuta 7 urtetik beherako umeentzat. Filma musikala da eta Grimm anaien zenbait ipuin batzen ditu istorio berean. Senar-emaztea okinak dira; sorgin batek botatako madarikazioaren era-

ginez, ezin dute seme-alabarik izan. Sorginkeria apurtzeko asmoz, basoan barneratuko dira, zenbait objektuen bila. Handik aurrera, ikusleak Txanogorritxo, Jack (babarrun ale magikoa), Rapunzel, Marierrauskin eta bestelako pertsonaia ezagunak topatuko ditu. Aktoreei dagokienez, Meryl Streep eta Johnny Depp azpimarra daitezke. Filma pasa den urtarrilaren 23an estreinatu zen Bizkaian.



Meryl Streep da sorgina. © WALT DISNEY

Lemoiz

Negozioetarako aukera berriak Armintzan

Armintzako arrantzaleen lehengo etxeetako beheko solairuko lokala errentan uzteko prozedura abiatu berri du Lemoizko Udalak. Hala, gaur egun Kaia taberna-jatetxea dena hiler 600 eurotan alokatu ahal izango da, BEZ barne. Horretarako eskaerak hilaren 24ra arte aurkez daitezke.

Halaber, Estatuko Loteria eta Apustuaren ordezkaritza komertzialak jakinarazi duenez, loteria saltzeko puntu misto berriak ezarriko dituzte; horien artean aipatu dituzte: Lemoizen, Barrikan eta Lamiakon (Leioa) ipini gura dituztenak. Salmenta puntu misto horiek daborduko funtzionatzen duten establezimenduetan jarriko dituzte, hau da, aktibitate komertzial bat negozio nagusitzat hartzen dutenetan, barbarako: tabernak, estankoak, litxarrerria-dendak eta kioskoak. Hala, eskualdeko aipatutako herri horietan Estatuko loteria eta apustu joko guz-



Lokala taberna-jatetxe bat zabaltzeko izango da.

tiak saldu ahal izango dute: Primitiba eta Euromillones, besteak beste. Negozio hori bere gain hartu nahi dutenek martxoaren 5era dute eskaria aurkezteko epea. Kontratuaren iraupena 10 urtekoa izango da, berriro izateko aukeragaz. Establezimenduak salmenten %5,5 eta %6 artekoa jasoko du; gainera, sariak emanez gero gehigarriak jasoko lituzke. ◀



Iñaki Saitua (ezkerrean) Getxoko Jazzaldiko arduradunak ere parte hartu zuen, otsailaren 11ko prentsaurrekoan. IREKIA

Gazteak jazzera

Getxoko Jazzaldian estreinaldia egingo du uztailaren 5ean Euskadiko Ikasleen Jazz Orkestrak. Musika eskoletako 23 ikaslek osatzen dute.

Euskadiko Ikasleen Jazz Orkestra sortzea bultzatu du Eusko Jaurlaritzak. Orotara 23 ikaslek osatzen dute; denak ere, Euskal Autonomia Erkidegoko (EAE) kontserbatorioetako eta musika eskoletako neska-mutilak. Hain zuzen ere, banda ezagutzera emateko asmoz, Euskal Autonomia Erkidegoan

(EAE) egin ohi diren nazioarteko hiru jazz jaialdietan joko dute musikari gazteek: uztailaren 5ean, Getxoko Jazzaldian izango dira; uztailaren 15ean, Gasteizko jaialdian, eta uztailaren 22an, Donostiakoan.

Jazzeko big band batean oinarritzen da Euskadiko Ikasleen Jazz Orkestra, talde horri dagozkion zurezko

haize, metalezko haize eta perkusio instrumentuekin: egurrezkoen atalean, sei saxofoi (saxofoi altuak, tenorean eta baritonoak); metalezkoen, bost tronpeta eta bost danbor (tronboi baxua barne); eta erritmikoen, piano akustiko, teklatu espezialista, gitarra elektriko, kontrabaxu eta baxu elektriko bana, eta perkusio jozaile bi (bateria eta perkusio latinoak).

Lan-egutegia

Orkestran parte hartzeko probak otsailaren 7an egin ziren, Gasteizko Jesus Guridi musika-kontserbatorioan, eta 55 musikari gazte aurkeztu ziren probetara.

Hautaketa-proben ondoren, eta orkestra kide guztiekin osatuta dagoenean, entsegu eta topaketen egutegia hasiko da, udako kontzertuei heldu aurretik. Martxotik maiatzera bitartean, Euskadiko Ikasleen Jazz Orkestrako kideak hiru alditan elkartuko dira, egun osoko saioetan (zapatuz), eskola teoriko eta praktikoak hartu eta entseguak egiteko.

Ekainaren amaieran eta uztailaren hasieran, Barrian (Araba) bost eguneko egonaldia egingo dute, nazioarteko jazzaldietan jo aurretik. ◀



Orube abandonatuak eleberriaz berba egingo du Garazi Kamiok

Uribe Kostako Irakurzaileen Txokoak (UKITX) Garazi Kamio idazle andoaindarra gonbidatu du, otsailaren 19an *Orube abandonatuak* bere liburuari buruz berba egin dezan. Solasaldia 19:30ean izango da Algortako kultur etxean, Villamonte kalean. Aipatutako lana Augustin Zubikarai bekaren idatzi zuen Kamiok. Andoaingo idazle gaztearen lehenengo eleberria dugu. *Orube abandonatuak*

liburuak hiru istorio txirikordatzen ditu, oso garai desberdinetakoak; 70 urteko aldea dago batetik bestera. Baina hirurek gauza pare bat dute amankomunean: hiru protagonista nagusiek bakardadea sufritzen dute eta orube berberean bizi dira. Idatzitako gainontzeko lanen artean, Kamiok *Beste norbaiten zapatak* ipuin-liburua kaleratu zuen 2012an, Igartzza bekaren laguntzaz idatzia. ◀

Abra txapeldunen arteko sariketa egingo dute

Aurtengo Abra Sarian, parte-hartzaile berriak gonbidatu beharrean, orain arteko edizio guztietako txapeldunetako batzuk elkarren artean lehian jartzea bururatu zaie Algortako Bertsolari Eskolako (ALBE) kideei. ALBEk 35. urteurrenaren kutsua eman gura die urtero-urtero antolatzen dituen ekitaldiei. Hala, aurtengo Bizkaiko Bertsolari Txapelketan finalera heldutako Jone Uria algortarra beste zazpi lagunekin lehiatuko da: Jon Martin, Beñat Gaztelumendi, Maddalen Arzallus, Asier Azpiroz, Endika Igartzabal, Nerea Ibarzabal eta Nuria Cortada. Bere edizioan txapela jantzi zuen Xabi Paya, oster, ez da lehiatuko. Bertso-saioa otsailaren 20an, barikuaz, egingo dute Abian kultur elkartearen, afari legea beteta. Mahai-inguruan esertzeko, 15 euro ordaindu beharko dituzte helduek, eta 12 euro, haurrek.

Bestalde, joan den abenduan Bizkaiko txapela jantzi ostean, otsaila-

ren 23an, astelehenaz, eskainiko diote zorion-ekitaldia Fredi Paya bertsolari algortarrari. Bi hitzordu jarri dituzte: bata 10:30ean, udaletxean, eta bestea 19:00etan, Algortako kultur etxean. ◀

XVI. Abra Sariketa

Otsailak 20, barikua

21:00 Abian kultur elkarte

Abra txapeldunen arteko sariketa:

Jon Martin, Beñat Gaztelumendi, Maddalen Arzallus, Jone Uria, Asier Azpiroz, Endika Igartzabal, Nerea Ibarzabal eta Nuria Cortada

Zorionak Fredi

Otsailak 23, astelehena

10:30 Udaletxea

Alkatearen harrera

19:00 Villamonteko kultur etxea

Ekitalditxoak: alkatearen ongi etorria, Frediren berba-bertsuak, ardoa eta pintxoak

Info+: albegetxo@gmail.com / 605704385

hirukagenda

Uribe Kostako astekaría

2015eko otsailaren 19tik otsailaren 25era arte



URIBE KOSTA

Mozorro-dantzaz ez da oraindino amaitu gurean

Aurreko asteburuan hasi ziren arren, aratusteek otsailaren 21ean, zapataz, jarraituko dute Algortan. Egun horretan izango dute ospakizunen egun handia algortarrek. Ohi beza-la, koadrilen mozorro txapelketa eta bazkari handia egongo dira. Aurretengo gaia filmak izango da. Horrez gainera, besteak beste, desfilea, ginkana eta erromeria egingo dituzte

Telletxen. Bien Bitartean, San Nikolas Ibilbideko tabernek haurrentzako eta nagusientzako mozorro txapelketak prestatu dituzte. Domekan, ostera, umeentzako puzgarriak eta txistorra-jana egongo dira, Telletxen. Berangori dagokionez, zapatuan, 18:00etan hasita, kalejira egingo dute Berangoeta kultur etxetik frontoira. Bertan, dantzaldia izango da. Dome-

kan, ostera, Otxandategi Dantza Taldeko kideek maskarada eta zanzantzarra antzeztuko dute, 11:00etatik aurrera. Ikuskizuna herriko auzoetan barrena egingo dute. Trabudu Dantzari Taldeak ere aratuste-ikuskizuna eskainiko du zapatuan Astrabuduan, 18:00etan, hasita. Dantzaldia ere egongo da. ◀

Info+: hiruka.eus/agenda

2015/02/19

El viaje de Bettie filma

Kurtzio kultur etxea | Sopela

Genero ikuspegiko zinea
Sarrera doan
18:00

2015/02/19

Beldurrezko ipuin barregarriak

Gobelako haur-liburutegia | Getxo

Dar-dar? Kar-kar izenburuko saioa eskainiko du Maite Frankok, 3 eta 6 urte arteko haurrentzat
Sarrera doan, edukiera bete arte
18:00

2015/02/19

Literatur saioa

Algortako Kasinoa | Getxo

Lo que no tiene nombre (Piedad Bonnet) liburuari buruzko solasaldia, gaztelaniaz
Sarrera doan
19:45

2015/02/19

Crazy Rock Bandits taldearen kontzertua

Silver's Tavern | Getxo

Getxo Zuzenean ekimenaren barruan
Sarrera doan
20:00

2015/02/20 - 2015/03/04

Pintura figuratiboak ikusgai

Algortako kultur etxea | Getxo

Alfredo Garciaeren margoak
Sarrera doan
Astelarenetik barikura, 11:00etatik 14:00etara eta 18:00etatik 21:30era, eta zapatuetan, 10:00etatik 13:00etara

2015/02/20

Magical girl filma

Andres Isasi musika-eskola | Getxo

Pelikularen proiektzioa eta foruma, 16 urtetik gorakoentzat
Sarrera: 2,9 euro
21:00

2015/02/20

Toileta irazi taldeen kontzertua

Xurru pizzeria | Gortiz

Sarrera: 3 euro
21:00

2015/02/21

Gure Esku Dagok «ametsak

Rio 2 haurrentzako filma

Josu Murueta kultur etxea | Erandio

Gaztelaniaz izango da
Sarrera: 2 euro. Udaletxean ere eskuragarri
17:00

2015/02/22

Las aventuras de Mr. Peabody y Sherman haurrentzako filma

Berango Antzokia | Berango

Gaztelaniaz izango da
Sarrera doan
18:00

2015/02/22

Barbantxo 3D antzerki multimedia

Andres Isasi musika-eskola | Getxo

Logela Multimedialearen eskutik, 3 eta 10 urte arteko haurrentzat eta bere alta-amentzat
Sarrera: 5 euro
18:00

2015/02/22

Zinegoak gaztetxoentzat

Gauegun gazteakua | Getxo

Nerabeei zuzendutako film-laburrak, Bilboko gay-lesbo-trans nazioarteko zinema jaialdiaren eskutik
Sarrera doan
18:00

2015/02/22

Boyhood filma

Josu Murueta kultur etxea | Erandio

Gaztelaniaz izango da
Sarrera: 2 euro. Udaletxean ere eskuragarri
19:00

2015/02/23

Liburu foroa

Udal liburutegia | Barrika

Alaa al-Aswani idazlearen *El Edificio Yacobian* liburuaren aurkeztu dute
18:30

2015/02/24

La sal de la tierra dokumentala

Kultur Leioa | Leioa

Sebastiao Salgado argazkilaria bidaiatzen
Sarrera: 2,5 euro
20:00

2015/02/25

Sanpedroak eta Karmenak antolatzekeo batzarra

Kurtzio kultur etxea | Sopela

Swing doinu berriak eskainiko ditu Alice Francisek

Madril eta Bilbo artean emango dituen kontzertuen artean, otsailaren 20an, barikua, Sopelan eskainiko du saioa Alice Francis abeslariak. Jatorriz errumaniarra da, eta Kolonia (Alemania) eta Castel Rudna (Errumania) artean bizi da. Emanaldia 20:00etan izango da eta sarrerak 6 euroan daude salgai, ohiko tokietan. *Miss Flapperty* ezinez ezagutzen duten artistak zoko harrakadako charleston eta swing doinuak gaurkotu ditu eta hip-hop eta musika elektronikoarekin nahastu: Francis bere bandarekin batera helduko da

Kurtziora. Francisek azaltzen du *flapperty* terminoa zoko hamarkadako etxe koandrea baino, jazz-klubak gustuko zituzten eta euren buruaren jabe ziren emakume askeen sinonimoa dela. Besteak beste, Billie Holiday artistaren eragina dauka.

elkartuko ditu»

Udaletxe plaza | Sopela

Plaza kolorez beteko dute oihai zatiak erabiliz

12:00

2015/02/21

La vieja eta Budasamen taldeen kontzertua

Xurut pizzeria | Gorliz

Sarrera: 3 euro

21:00

2015/02/22

2015/02/25

Zinegoak

Algortako kultur etxea | Getxo

Film-laburren emanaldia

Sarrera doan

20:00

Urteko lehenengo bilera egingo du Sopela eta Larrabasterako jai-batzordeak. Parte-hartzea zabalik

19:00



Barbantxo 3D antzezlanaren Areetan

Joxemiel Barandiaranek neurri txikiko pertsonaiak dauzkatena ipuin klasikoaren euskal aldaerak bildu zituen. Logelako Multimedia konpainiak ipuin horien pasarte batzuk aukeratu eta gaurkotu ditu, eta obra berritzailea, dibertigarria eta parte-hartzailea eskaini.

Noiz: Otsailak 22, domeka. 18:00

Non: An dres Isasi musika-eskola

Sarrera: 5 euro

3-10 urte bitarteko haurrei eta gurasoei zuzenduta

BILBO

Laurita Silesen bideo-lanak ikusgai Rekalde Aretan

Laurita Siles Algortako Portu Zaharrean bertokotutako Malagako artista gaztearen *helARTE es morirse de frio* erakusketan martxoaren 22ra arte egongo da ikusgai Rekalde Aretan. Horrekin batera, otsailaren 19an, eguenaz, Silesek *Lurra Iruten* performancea eskainiko du, Joseba Edesa Portillok lagunduta. Hitzordua 18:00etan jarri dute Bilboko Errekalde Aretan (Errealde zuma-
lea, 30).



LEIOA

Sugaray Rayford eta Travellin’ Brothers blues kontzertua

Animatzaile aparta da Texasen jaioetako Caron *Sugaray* Rayford. Otsailaren 20an, barikua, Travellin’ Brothers banda ondoan izango du Kultur Leioan. Azken horiek Europa eta Estatu Batuetatik itzuli berriak dira eta *Magnolia Route* diskoa dakarte besapean. Sugaray Rayford eta Travellin’ Brothers-en kontzertua 22:00etan izango da. Sarrerak 10 euroan egongo dira.



Zure ekitaldiren bat hemen ikusi nahi baduzu, bi aukera dituzu:

1 Bidali informazioa helbide elektroniko honetara: hiruka@hiruka.eus

2 www.hiruka.eus atarian Komunitateko kide egin eta zuk zeuk sartu ahalko duzu ekitaldia Agenda atalean.



Aluzinatzen

URIZ MORENO AJURIA
Putxa dinostazu,
txarra balitz legez

Grey deuna, eta Valentin en 50 itzalak

Luzea da heteropatriarkatuaren itzala; jaiegun propioak ere baditu. Baliteke horregatik aukuratu izana Valentin eguna *Greyren 50 itzal* zinema-adaptazioaren estreinaldirako. Filmean, BDSMa alboratuta, erromantze-istoriotzat saltzen digute kontrolean eta jabetzan oinarritzen den protagonisten arteko harremana.

Maitasun-erromantikoaren erredua kulturala eta ikasia da. He-dabide, film, eleberri, telesail eta abarren bidez eredu hau jasotzen dugu etengabe: ikasi egiten dugu noiz maitemindu, nogaz, zelan... Hainbat adierazle maitasuntzat identifikatzen ere ikasten dugu. Eredu heteronormatiboa da, bere portaera-kodearekin, sexu bakoitzari rol oso zehatzak esleitzen dizkiona: Grey boteretsu eta arrakastatsuak salbatuko du Ana inuzente eta sentibera.

Maitasunaren handitasuna sakrifizioaren tamainak erakusten du; zentzubakoak, faltsuak, ezinezkoak diren sineskeriaz josisia dago, laranja erdiaren mitoa kasu. Are okerrago, tratatu txartzat jo daitezkeen hainbat jarrera-portaera ere baliozkotzen ditu maitasun handi horren izenean. Gida ona dateke Greyren trilogia hau ikasteko: maitasun erromantikoa kaltegarria da norberaren askatasunerako. Arriskutsuegia emakumeontzat, batez ere; ideologia heteropatriarkalak «maitasunaren» fenomeno geure bizitzaren oinarri eta ardatz legez kokatzen baitigu. Txikitatik neskak emozio-afektibitatearen munduan murgilarazten gaituzte, ondo barnera dezagun zein izango den gure funtzioa jendartean. Printze urdinik ez dago, matxo zapaltzaileak bai, ordea.

«Maite dut txalaparta jotzen irakastea»



Ander Sanchez txalapartari sopolotarra.

Ander Sanchez sopolotarrak flamenko eta klake erritmoak nahastu ditu ttakunak.

Abenduan *Sincopados* ikuskitzuna estreinatu zuten Sanchez eta beste hiru lagunek, txalaparta eta klakea batuz.

Noiz sortu zitzaizun txalaparta jotzeko grina? Bakarrik ikasi al zenuen?

Beti izan ditut oso gogoko musika eta futbola. Futbola 23 urterekin utzi, eta txalaparta ikastaro batean izena eman nuen. Hortik aurrera, ahal nuen guztietan jotzen saiatzen nintzen. Lehen ez zegoen txalaparta ikastaro askorik, besteekin elkarrekin jotzea zen ikasteko biderik bakarrenetarikoa.

Ondo ikasiko zenuen... Beste batzuei eskolak ematen dizkiezu orain.

Hala da, 15 urteko eskarmentua daukat txalaparta eskolak ematen. Mota guztietako ikasleak dauzkatz: adinez

gazteagoak, zaharragoak, umeak; musikariak, hasiberriak... Maite dut txalaparta jotzen irakastea.

Eta txalaparta flamenkoarekin uztartzeko aukera nola sortu zitzaizun?

Flamenkoak daukan indar erritmikoa oso erakargarria suertatu zait beti. Ideia hori baneukan buruan, eta, kasualitatez, flamenko-eskolak ematen zebilen ikasle bat baneukan sasoi horretan. Bere irakasle Chua Alba granadarra txalapartari baten bila zebilen,

“*Flamenkoak daukan indar erritmikoa oso erakargarria suertatu izan zait beti*”

Distintas izeneko bere ikuskizunerako. Bestalde, abenduan *Sincopados* ikuskitzuna estreinatu genuen. Txalaparta eta klakea jorratzen ditugu horretan. Ikuskizun berria, polita, bertokoa eta

kalitatezkoa da. Dantza, pianoa eta txalaparta nahasten ditugu.

Sevillan trebatzen ere ibili zinen.

Bai. Bi urtez, han bizi eta perkusio flamenkoak ikasten ibili nintzen; txaloak eta kaxoia, batez ere. Orain Bilboko Lur Soinuak akademian ematen ditut kaxoi, darbuka eta txalaparta eskolak.

Nola sortu zen *Txabiltran* (aurreko *Txaleo*) ikuskizuna egiteko ideia?

Sevillatik bueltan etorri nintzen, ideia, ezagutza eta gogo berriekin. Beste musikariekin eta dantzariarekin topaketak egiten hasi ginen, eta hara non, Lidia Lorenzo «bailaora» Granadatik itzuli zen. Bageneukan taldea!

Zer aurkituko dugu *Txabiltran*-en?

Kalitatezko flamenko ikuskizuna da. Dantza, ahotsa, gitarra eta kaxoiaz gain; pianoa, bateria eta txalaparta barne hartzen ditu. Tradizioa eta modernitatea uztartzen ditugu, flamenkoaren eta euskal folklorearen elementu batzuk erabiliz. ◀


saiazgetaria
HOTELA
Roke Deuna 25
Getaria
T. 943.140.143
www.siazgetaria.com



Egunero, 24 orduz
www.hiruka.eus



Leioako Umore Azokak bizarra eta pasta-betaurrekoak jantzi ditu



Leioako Umore Azokaren aurtengo kartela.

Maiatzaren 21etik 24ra

egingo dute kaleko artisten azokaren 16. edizioa.

Laster jakinaraziko dituzte hautatutako konpainiak

Umore Azokaren antolatzaileek tantaka eman ohi dituzte edizio berrien nondik norakoak. Oraingo honetan kartela eman dute ezagutzera. Hala, *hipster* erara, bizarra eta pasta-betaurrekoak jantzi ditu kaleko artisten Leioako azokak, bere 16. edizioan, «kaleko arteekin duen konpromiso eta hurbiltasuna erakutsi» guran. Antolatzaileen arabera, «nagusi diren joeretatik aldenduz, Umore Azokak nortasuna erakusten du, berezko nortasuna, bere aurtengo programazioa ixtear dagoen une honetan». Jakinarazi dutenez, aurtengo edizioan parte hartzeko 410 eskaera jaso dira: 42 EAEtik, 235 beste autonomia erkidego batzuetatik, eta 135 gehiago beste 20 herrialde desberdinetatik. Aipatutako antzezlan gutietatik 74 estreinaldi-proposamenak

dira. Leioan, maiatzaren 21etik 24ra kaleak hartuko dituzten antzerki taldeen izenak laster ezagutaraziko dituzte Umore Azokaren arduradunek.

laz 35.000 ikusle

Aurreko edizioei begiratuz, 2014ko Umore Azokak oso harrera ona izan zuen. Maiatzaren 15etik 18ra, 35.000 ikusle batu ziren Leioan. Arte eszenikoetako 210 profesionalak parte hartu zuten. Antolatzaileen arabera, hamabosgarren edizioa arrakastatsua suertatu zen, neurri handi batean gerturatutako ikusle eta profesionalen kopuru eta egitarauko lanen kalitate handiarengatik. Eguraldi ona ere lagungarria izan zen; azkenik, bi ikuskizun izan ezik, aurreikusitako 120tik gora emanaldi eskaini zituzten.

Besteak beste, Ikuskizun Onenaren Saria Manolo Alcantararen *Rudo* lanak jaso zuen. Euskadiko Ikuskizun Onenaren Saria, ostera, Kukai Dantza Konpainiaren *Gelajauziak* ikuskizunarentzat izan zen. Kadavresky Compagnie de Cirque-ren *L'effet escargot* lana ere saritu zuten. ◀

Sagardoa, ardoa edo biak aukeran izango dituzte hurrengo egunetan euskaltzaleek

Aurten ere Abaltzisketako Zalbide Asagardotegira joango dira Berbots Erandion Euskaraz taldeko lagunak. Martxoaren 7an, zapatuaz, jarri dute bazkarirako hitzordua. Hala ere, jatetxea txikia denez, otsailaren 28a izango da izena emateko azken eguna. Berboskideek 35 euro ordaindu behariko dituzte, eta berbalagunek, 30 euro. Goizeko 11etan irtengo da autobusa Erandioko «gasolino»-tik.

Bestalde, *Hor dago ardoa* dastaketa-saio berritzaileagaz gozatzeko aukera egongo da, otsailaren 26an, Akarlandako Motagane txakolindegian. Korrika Kulturalaren barruan, 19:30ean izango da saioa. *Hor dago ardoa* arteaz jantzitako ardo dastaketa da. Mikel Garaizabal enologoak eta bere bandak, zuzeneko musika, margolanak, antzezpena eta bideoa batuz, ardoa gozamen hutsa dela erakutsiko dute. Berbotsen bitartez izena eman daiteke ardo-dastaketan. ◀

info+: berbots@gmail.com

Sopela Kosta Fest jaialdirako proposamenak jasoko ditu Udalak

Iazko irailean ospatu zuten lehenengo aldiz Sopela Kosta Fest jaialdia. Ekitaldiak izandako arrakasta ikusita, aurten ere egitea pentsatu du Udalak. Irailean izango da, eta aurrekoak bezala, hiru osagai nagusi edukiko ditu: musika, natura eta surfa. Hala, Udalak aukera eman gura die sopoloztar denei, ekarpenik (ideiaren bat, proposamenak...) badaukate, udaletxean helarazteko. Ekarpenak programazioari begira egin daitezke, edo bestela, jaialdiaren beraren inguruan: ideia berriak, zelan hobetu, zer ikusi duten faltan aurreko edizioan, eta abar. Horretarako Udalera jo beharko da.

Sopelako hondartza ingurua eta udaletxe plaza jardueraz bete ziren iaz, irailaren 24tik 28ra. Besteak beste, animalien behaketa, hondartza garbitzeko auzolana, zinea eta mahai-inguruak, argazkiak egiteko ikastaro trinkoa, surf txapelketa eta ikastaroak, eta kontzertuak egon ziren. ◀

Info+: kultura@sopela.eus

www.kulturleioa.com

Leioa 2015

OTSAILAK 26
"Arren ganbara eta emeen sotoa"
 ATX Teatroa
 ANTZERKIA · 20:30 h / 8 €

OTSAILAK 27
"Amodioaren ziega"
 Lauka Teatroa
 ANTZERKIA (ESTREINALDIA)
 20:30 h / 8 €

OTSAILAK 28
"Zer duzu Amy?"
 Oh My God!
 ANTZERKIA · 20:00 h / 6 €

"Gosariak"
 Gose
 MUSIKA · 22:00 h / 10 €

MARTXOAK 1
"Jokoz kanpo"
 Borobil Teatroa
 ANTZERKIA (ESTREINALDIA)
 19:00 h / 10 €

BONOA: 30 €
 Hilak 28, bonoa: 12 €

«Eskaintzen dugun arropa etikoa, adimenduna eta berritzailea da»

Ander Aldekoa Imaz algortarrak (Getxo, 1985) Nabari moda-firma aurkeztu berri du Madrilgo Mercedes-Benz Fashion Week-an. Ion Fiz diseinatzailearen laguntzagaz, gazte horrek sortutako arropak abangoardiazko diseinua, teknologia eta bioteknologia batzen dituzte, erabiltzailearen esperientzia ahalik eta gehien hobetzeko. Halaber, ingurumenagaz eta gizarte erantzukizunagaz konpromiso sendoa dutela aitortzen du firmaren sortzaileak.



IKER RINCON

Joan den otsailaren 8an Nabari firma berria aurkeztu zenuen Madrilgo Mercedes-Benz Fashion Week-en. Nolakoa izan zen jendearen harrera?

Harrera oso ona izan zen, ikusmin handia sortu zuen. Egunak pasa ahala, Nabari gero eta jende gehiagoren ahoan dago. Harrera oso ona izaten ari da.

Bilduma hausle eta abangoardiakoagaz agertu zinen, Ion Fiz diseinatzaile ospetsuaren laguntzagaz. Bai, hala da. Ion Fizen diseinuak bildumaren indargunea izan dira. Zalantzarik gabe, bere laguntza oso garrantzitsua izan da.

Zelakoa izan da bion arteko elkarlana?

Elkarlana oso positiboa izan da. Hasieratik ez du zalantzan jarri Nabarigaz kolaboratzea, eta bion arteko lana ezin hobea izan da. Hala, datozen urteetan Nabari nazioarteko pasarela esanguratsuenetara eramateko akordioa sinatu dugu. Oso pozik nago Ion Fizek lagundutako bildumen etorkizun oparoagatik; gainera, diseinatzaileak formak eta abangoardiazko koloreak ematen jarraituko du.

Nabari euskal firma oso berezia da. Zerk aldentzen zaituzte beste moda-firmekiko?

Nabari firma euskalduna eta getxotarra da. Bestee-kiko ezberdintasuna hainbat faktorek ekartzen dute: fabrikazio jasangarria eramaten dugu aurrera; erabilitako lehengaiak organikoak dira, sustantzia toxikorik gabekoak; teknologia eta bioteknologia erabil-

tzen ditugu; prozesu ekologikoen eta lan baldintzen egokitasuna aitortzen duten nazioarteko erakunde-
deen ziurtagiriak lortu ditugu; itsuentzako etiketatze eta teknologia darabilgu; eta arroparen informazioa erosleak eskatutako hizkuntza bakarrean ematen dugu, esate baterako, euskaraz.

Zelan otu zitzaizun moda firma bat sortzea?

Pelikuletan bezala, hainbat kasualitatearen ostean otu zitzaidan. Mota askotako formakuntza jaso dut eta sektore oso ezberdinetan lan egin dut. Horrek

“ **B-endorfina molekula duen munduko lehenengo arropa eskaintzen dugu, poztasunaren molekula, alegia** ”

guztiak asko aberastu nau pertsonalki. Denbora luzea eman nuen benetan nahi nuen lanbidea topatzen, eta azkenean, nahigabe, ikastaro batean eman nuen izena.

Ikastaroa zineman, telebistan eta antzerkian «figurinista» izateko zen, Getxoko Antzerki Eskolan (arraroa egiten zitzaidan figuratzeko ikastaro bat egotea, figurante moduan jarduteko, baina oso ona

iruditu zitzaidan). Ikastaro horretarako, 53 lagunek eman zuten izena, eta 16 plaza bakarrik zeudenez, hautaketa-prozesu baterako deitu ziguten. Elkarriketaren aurreko egunean e-mail bat bidali zidaten matrikula-fitxagaz, hautatua izanez gero, nire datuak beteta izateko. Fitxa horretan, nire harridurarako, «jantzien teknikaria» jartzen zuen, eta ohartu nintzenez, ez da berdina «figurantea» eta «figurinista»; azken hori aktoreen jantziak eramaten dituen da.

Umorez hartu nuen dena, elkarriketara joan nintzen eta nire akatsaren berri eman nien; hala ere, ni hautatuz gero ikasteko prest nengoela azaldu nuen. Bada, hartu ninduten, elkarriketatzaileek pentsatzen zutelako nire bizitza hortik bideratu nezakeelakoan edo. Hala, ehungintzaren eta modaren munduan ezjakintasunetik hasi arren, asko ikasi nuen ikastaroan.

Horren ostean, lagun batek kamisetan diseinuak egitera animatu ninduen, eta hortik aurrera, nire jarrerak ekintzaileak proiektu bat sortzera eramanez ninduen. Nahiz eta Nabari kaudimenduna izan, ez dut sortu aberasteko, baizik eta lana sortzeko eta zoriontsua izateko.

Hiru urteko lanaren emaitza izan da Nabari moda-firma. Nolakoa izan da proiektu horren bilakaera denbora tarte horretan?

Bidea oso gogorra izan da, baina merezi izan du. Bakarrik eta diru barik hasi nintzen, baina horrek ez



Ekintzaile baten profila

Ander Aldekoa Imaz (1985) algortarrak azaltzen duenez, urteetan zehar bizitako egoera on eta zailek heldutasun sendoa izatea ekarri dio, bizitzarekiko maitasun amaitezina eta jarrera borrokalaria izate-gaz batera.

Hainbat jazoerek eta kasualitatek mota askotako formazioa eta lan esperientzia izatera eraman dute. Bada, memento berean bi enpresa sortu eta izatera eraman dute. Gaur egun Nabari moda firmaren sortzailea eta CEOa da.

Zortzi urte zituela GKE bategaz kolaboratzen hasi zen, eta 12 urtegez kontzientzia politikoa izaten hasi zen; lau urte beranduago politikan murgildu zen, Eusko Alkartasuna alderdiagaz. Politika 2013an baztertu zuen hein handi batean, eta gaur egun, enpresa-munduan lan egiteagaz batera, astialdian Giza Eskubideen alde bo-luntario-lana egiten duela aitortzen du.

Azken urteotan denetarik ikasi du Aldekoak, hala nola enpresen administrazio-kudeaketarako goi-mailako zikloa, aisialdirako zuzendaritza, marketin online eta figurinismoa. Azken horri esker, 2012an Nabari sortzeko ideia otu zitzaion, eta ordutik buru belarri dabil horretan.

Info+: www.nabari.eus
www.anderaldekoa.net

ninduen atzera bota. Zentratu beharra nuen, asko lan egin, lasai hartu, imajinazioari eragin eta talde on bat sortzeko jendea bilatu. Nahiz eta enpresa bat sortzeko eta ekiteko zailtasun izugarriak egon (diru-laguntzak lortzeko zailtasunak eta traba burokratiko izugarriak, esate baterako), inbertitzaileak, kideak (besteak beste, ingeniariak eta laborategi bat) eta kolaboratzaileak (nabarmenezkoa da Ion Fiz) aurkitu nituen. Taldea garatu ahala, lana jasangarriagoa bihurtzen joan da. Tamalgarria da instituzioek soilik dagoeneko dirua dutenei laguntzea; hala ere, pentsatu nahi dut proiektu etiko eta errentagarrien ekintzaile berriek erraztasun handiagoak izango dituztela etorkizunean.

Ehungintza, teknologia eta bioteknologia elkartzen dituzu modan. Zein da batuketa horren emaitza?

Emaitza arropa etikoa, adimenduna eta berritzailea da. Etikoa, lehengaiak bidezko merkataritzaren bitartez lortzen ditugulako, prozesuetan giza eta lan duintasunak zaintzen direlako eta itsuen baldintzak kontuan hartzen ditugulako. Adimenduna, txip bati esker, arroparen erabilera osoa jakin dezakegulako, noiz jantzi dugun azkenengo aldiz, erabileraren eta uraren gogortasunaren arabera, nola garbitu, eta eguraldiaren arabera, zer gehiago jantzi behar dugun gomendatzen digulako. Eta berritzailea, aipatutakoagatik, eta munduko lehenengo arropa delako b-endorfina molekula daramana (hori poztasunaren molekula bezala ere da ezaguna).

Nabari firman teknologia eta bioteknologia patentatu ditugu, eta ez dut baztertzen bestelako asmakizunak erabiltzea, erabiltzailearen esperientzia hobetzeko.

Zertan eragiten du bioteknologiak?

Bioteknologian bi prozesu daude: lehenengoan, ehunak entzima naturalakaz tratatzen ditugu, ehun aurreratu bat lortzeko. Bigarrenean, berriz, b-endorfina molekula ezartzen dugu denboran zehar mantentzeko, eta garbiketaz gogortu egiten da hori.

“Eskainitako poloak kontzientzia soziala eta ingurunearekiko errespetua dutenei zuzenduta daude”

B-endorfina gure organismoak sortzen duen molekula naturala da, kirola egiten dugunean, adibidez; eta horrek hobeto sentiarazten gaitu.

Hainbat ikerketaren emaitzen ondoren, erabaki genuen molekula hori arropan erabiltzea.

Halaber, azaltzen duzu ingurumenagaz eta gizarte erantzukizunagaz konpromiso sendoa duzuela. Zer

esan nahi duzu horregaz?

Horrek esan nahi du Nabarik ingurumena zaintzen duela. Produktorako prozesuak jasangarriak dira, ez da pestizidarik erabiltzen, ezta sustantzia toxikorik ere. Halaber, Nabarik arropak eskainiko ditu erosleen eskubide linguistikoak errespetatuta. Gainera, jantziek pertsonen osasuna errespetatzen dute ez dutelako pestizidarik, ezta sustantzia toxikorik ere. Bestalde, itsuen eskubideak errespetatzen ditugu, etiketak Braillez eginda daudelako.

Hilabete barru Nabari Online Denda irekiko duzu, ezta? Zer aurkitu ahal izango da horretan?

Bai, hala da. Gero eta gutxiago falta da martxan jartzeko. Bertan Ion Fizek eskusiboki diseinatutako lehenengo bilduma eta Nabariren lehenengo bilduma klasikoa aurkitu ahal izango dira.

Nabarik eskaintzen duen arropa nori zuzenduta dagoela esan daiteke?

Orain Nabarik poloak eskaintzen ditu bakarrik. Aurrerago, apurka-apurka, arropa mota berriak gehituko ditugu, baina, oraingoz, poloak bakarrik.

Kontzientzia soziala eta ingurunearekiko errespetua duten gizon-emakumei zuzenduta dago, aparteko jantziak bilatzen dituztenak. Halaber, Nabari arropak teknologiagaz darabiltenei ere zuzenduta dago, bioteknologiaren esentziagaz gozatu eta «made in Basque Country» produktua baloratzen dutenentzako. ◀

Dopinez hildako idien jabeari, kirol-zigorrik ez

Abuztuan, Erandiogoikoko Andra Mari jaietan idi bikote bat hil zen dopinagatik. Jabeari ireki zioten foru espediente. Kirol-zigorrik ez da egongo.

Foru Aldundiak egindako nekropsiak ondorioztatu zuen «anfetaminakaz dopatzeagatik hil zirela» abuztuaren 16an hildako idiak. Hori dela-eta, idi-bikotearen jabearen kontrako zigor espediente zabaldu zuen Nekazaritza Arloak. Irene Pardo diputatuak azaldu zuenez, idien jabeari «hiru arau-hauste» lepora dakizkioke; «horietatik bi, oso larriak». Idiei anfetaminak eman zizkiola egotzita, «animalia bakoitzeko, 15.000 eurora hel daitekeen isuna» jaso dezake ganaduzaleak. Beste «1.500 euro» ere ordaindu beharko lituzke, «idiei al-

baitariaren laguntza ez emateagatik». Halaber, ganadutegia «behin-behinekoz» ixteko erabakia hartu zuen Aldundiak, eta espedientearen berri eman zien Bizkaiko zein Euskal Herriko herri kirol federazioei, «kirol arautegiaren arabera joka dezaten».

Hanka biko animaliak

Bernardo Ureta Euskal Joko eta Kirolen Euskal Federazioko presidentea-
ren ustez, oso zaila da berak zuzentzen duen erakunderen aldetik kasu hori zigortzea: «Erandion gertatu zena kasu oso erraza da. Gure txapelketatik



Bernardo Ureta Euskal Joko eta Kirolen Euskal Federazioko presidentea. © EUSKO LEGEBILTZARRA

kanpo dago. Ez da gure proba. Eta gu sartu egin gara, ahal izan dugun neurrian. Indar osoz salaketa egin genuen. Nik zuzenean egin nuen salaketa, eta, hori dela eta ez dela, gaur egun hainbat plazatan debekatuta daukat sartzea». Adierazpenak hilaren 9an egin zituen Eusko Legebiltzarreko Kultura Batzordean, PPren eskariz izandako agerraldian. Bertan, berak zuzentzen duen Federazioaren mugak azaldu zituen Uretak. «Guk Euskal Herrian txapelketa bakarra daukagu eta oraintxe egingo dugu, Elgoibarren, martxoaren 22an. Besteak gugandik kanpo egoten

dira. Horrek ez du esan nahi eskuak garbitzen ditugunik». Udalerriek, enpresariak eta elkarteek antolatzen dituzten Erandiogoikoko moduko probetan esku-hartzerik ez dutela argitu zuen. Eta bestelakoetan ere, «guk fitxak hanka biko animaliei egiten diegu, ez lau hankakoei». Dopinaren aurka «eraginkorrako» jarduteko, baliabide gehiago eta proba guztiak Federazioaren esku uzteko eskatu zuen, Jaurilaritza, aldundiak eta Federazioak koordinatzeagaz batera. Erandioko heriotzen ostean, batzarra izan zuten. Jarraipenik ez du izan. ◀

Euskal Mendizaleen Gala barikuan, Faduran

Barikuan, hilak 20, Euskal Mendizaleen 19. Gala ospatuko da Algortako Fadura kiroldegian. Algortako Etorkizuna mendi-talde historikoak antolatuta; ekitaldiak Euskal Mendizale Federazioaren urteroko topaketa zein *Pyrenaica* aldizkariaren 32. sariak hartuko ditu.

Gala hasteko, Ondarreta Abesbatzak ongi etorria egingo die bertaratutakoei, Imanol Landa Getxoko alkateak, Joseba Ugalde Federazioko lehendakariak eta Alberto Gomez Etorkizunako presidentek irekiera ekitaldia protagonizatu aurretik.

Ondoren, aldizkariaren sariak banatuko ditu Antonio Ortega *Pyrenaica*-ko zuzendariak. Besteak beste honako kategoriak sarituko ditu: argazkigintza, mendi-artikulua, emakumeen bloga eta aldizkariaren laguna. Ez dira sari bakarrik izango, Mendi-zaletasunaren Galak 2014an lan berezia egin duten kirolari, pertsona eta



Swiderski Bilbon. © ENRIQUE MORENO ESQUIBEL

erakundeen ahalegina ere eskertuko baitu. Gala amaitzeko bidean, Fredi Paya bertsolari algortarrak abestuko du, eta, segidan, *Sati* film poloniarra proiektatuko dute, Poloniako Kultur Institutuari esker. Bartłomiej Swiderskik zuzendutako film laburrak Himalayako Shisha Pangma mendian hil zen Piotr Morawskiren bizitza kontatzen du. Zintak Alpinismoko Film Okena saria lortu zuen abenduan, Mendi Film Festival-en. ◀

Eskubaloi campusean izen-ematea, zabalik

Daborduko 1997 eta 2004 urteen bitartean jaiotako neska-mutilek inskriba daitezke, Urdulizko eskubaloi taldeak eta Uribeko eskubaloi eskolak udarako antolatu duten Uribeko Campusean. Bi erakundeek zabaldu dutenez, Campusaren zazpi-garren edizioaren lehenengo txanda ekainaren 27tik uztailaren 3ra izango da, eta bigarrena, uztailaren 13tik 19ra. Tokia mugatua da; inskripzioak heltzen diren ordenan banatuko dira. Hori dela eta, izen-emate fitxa ahalik eta lasterren betetzeko deia egin dute.

Campus Mungiako Larramendi ikastolan eta inguruetan egingo dute. Bertan, gazteek eskubaloian jokatu-ko dute, hondartzan zein pistan, begiraleak zein elitezko jokalariekaz. Haiekaz solastatzeko aukera ere izango dute. Gainera, tailerrak, gaubelak, ur-jarduerak eta kanpoko jokoak izango dira. Izena emateko, interesatuek klubarekin harremanetan jarri eta



Mungiak hartuko du campusa. © URDULIZKO E.T.

erreserba baieztatu ostean, 375 euroko diru-sarrera egin beharko dute Urdulizko saskibaloi-taldearen kontuan. Banku-agirian campusera joango den kirolariaren izen-abizenak ipini beharko dira. Horren ostean, izen-emate orria eta gurasoen baimena bete eta klubera bidali ahal izango da. Bueltan taldeak dena ondo dagoela konfirmatu eta campuseko argibideak bidaliko ditu posta elektronikoz. ◀

Info+: campusbase@urduliz.com / 692 705 161



Txema Negro bederatzigarren sailkatu zen iazko Sahara Maratoian. © ASTRABUDUA TALDEA

«Saharako gatazka ez da ahaztu behar»

Astrabuduko Txema Negrok maratoia korrituko du Aljerian. Saharako errefuxiatuei elkartasuna eramango die

Negrok 43 urte ditu eta Euskotreneko Bilboko Tranbian gidaria da. Euskal Trenbideetako Langileak Mugarik Gabe taldeko kidea da eta bigarren aldiz errefuxiatu sahararren gunera doa, 42.195 metroak korritzera zein autogestio proiektuetan laguntzera.

Sahara Maratoia korrituko duzu.

Bai, proba hilaren 24an da, Aljeriako errefuxiatu sahararren kanpamentuen artean: Aaiun etzauntzatik Smarara,

Auserd zeharkatuta. Xedea da errefuxiatu-guneei lotura eta bizitza ematea. Sahararrak egun horretan monotoniatik ateratzen dira; dena ematen dute parte-hartzaileak animatzeko.

Zertan da berezia?

Atzean nazioarteko elkartasun-proiektua dago Sahararen gatazka ahaztu ez dadin, 39 urteren ondoren. Horrela, gatazkaren gaiak piztuta jarraitzen du. Han gertatzen dena kontatu eta laguntzak jarraituko duela bermatzeko ekarpena da. Oso garrantzitsua da.

Zelan da maratoia basamortuan?

Oso gogorra. Hondartzan hiru ordu eta erdi korrika egitea legez. Lehenengo 21 kilometroan ibilbidea errazagoa da, laua; arearen azpian harria dago. Baina 25. eta 35. kilometroen artean des-

nibel handiak daude, eta hori gogorra da. Horri tenperatura gehitu behar zaio: bero lehorra duzu, nahiz eta negua izan. Maratoia goizean hasten da, 22-23 graduan, baina laster 30etik gora egiten du. Hemendik joanda, gehiago nabaritzen da. Dena den, helburuak

“ Jon Salvador erandioztarrak zeukan errekorra: 2:42:40 ”

parte-hartzea, amaitzea eta elkartasuna dira. Denbora eta sailkapena bazterrean gelditzen dira.

Zer denbora egin zenuen iaz?

Asko prestatu barik, 3 ordu eta erdi. Sailkapemn orrokorrean, 9. lotu nin-

tzen, eta lehena, nire kategorian, 40 eta 45 urte bitartekoan. Izan, 43 urte ditut. Ondo dago. Jon Salvador erandioztarrak zeukan errekorra: 2:42:40.

Zerk harritu zintuen han?

Denak: bizi-baldintzek, ohiturek, atea zabal-zabal jartzeak. Topikoa dirudi, baina jan barik lotzen dira, zuk jan, eta gustura egoteko. Lo egiteko ez bada, 7 egunean ez zaude bakarrik. Nekagarria izan daiteke adeitasuna. Iaz, bizikleta kaxkarra eraman genuen eta umeak poz-pozik jarri ziren.

Ez zara bakarrik joango.

Ez. Euskal Trenbideetako Langileak Mugarik Gabeko kidea naiz, eta elkarteak Sahara laguntzeko xedea du. Txus Martin elkarteko koordinatzaileak lagunduko dit, elkartasun arloaz arduratzeko. Maratoia egin eta bueltatzea nahiko deskafeinatua iruditzen zitzaigun. Aurten Euskotrenek emandako babesari esker, elkartasun proiektu bi ditugu. Alde batetik, Aaiun kanpamentuko nekazaritza eskolara 500 aloe vera landare eraman eta plantazioa sortuko dugu, gazte errefuxiatuek kudeatuko dutena. Aloeren zukuaz ultzerak eta adinduen zenbait gaitz tratatu, eta kremak eta ukenduak egin ahal izango dituzte, erre-durak edo psoriasia arintzeko. Merkataritza eta komunitatea bultzatzeko baliagarria izan daiteke. Bestea, bitxikeria da: Euskotrenek kirol-ekipamendua emango digu proban lagunduko didaten hiru gazte sahararri eta lauroi.

Ez dira izango zuen ekarpen bakarrak.

Ez. Proban parte hartzeko 900 euro ordainduko ditugu 400 bat kirolarik; eta 200 euro bertako umei eskoletan kirol ekipamendu eta programak eskaintzeko izango dira. Beste zati bat, kirolariak haien etxeetan hartzen dituzten sendientzat da. ◀

SKATEPARK UK
BERANGO Indoor
ukskateparkberango@gmail.com
664 226 700
Sabino Arana 60, 48640 - Berango - Bizkaia

TABERNA
Ekin
JATETXEA
CALLE BOLUE Nº4 TEL: 946080462

KONTXI
ZUAZUBISKAR
URDAITEGIXA
Aldituak gara, Urdaiazpiko Iberiko,
Pate eta Gaztietan!!
Alangobarri 10, ALGORTA
Tf. 94 491 02 93

PINTXO POTE
OSTEGUNETAN
12:00 ETATIK
15:00ak ARTE
Portu Zaharra Bar

Egunkariak
prentsa eta aldizkariak
Algotako Etorbidea 78 - Tf. 94 491 27 34

TABERNA
Unai
JATETXEA
ALGORTAKO ETORBIDEA, 96
48991 GETXO (BIZKAIA)
TELF. 944661661
TABERNAUNAI@HOTMAIL.COM

Abran denboralea, garaile



Punto Marineroko II. Saria urteko lehen bela-proba da Abran. © ABRAKO ITSAS ERREGE KLUBA

Abrako Itsas Errege Klubak antolatutako Punto Marineroko II Sariak baditu irabazleak daborduko. Javier Onaindiaren *Symphony* bela-ontzia nagusitu zen A kategorian. Javier Peñaren *As de Guia VII* eta Juan Valdiviaren *Gaitero* berdinduta amaitu zuten, B mailan. Azkenik, Jairo Lopez de Guevararen *Ramper* eta Christian Jauregiaren *Freus* ontziek irabazi zuten, hurrenez hurren, C eta J80 kategorietan. Azken proba bertan behera utzi behar izan zuten zapatuan, eguraldi kaxkarragatik. Aurreko bela-estropada ere olatu handien alertagatik suspenditu behar izan zuten, urtarileko jardunaldi biak baino ez dituzte puntuatu. ◀

Light Contact Euskadiko txapelketaren garaipen denak eskualdetik kanpo

Urdulizen jokatu arren, Light Contact Euskadiko txapelketaren garaipen denak ihes egin zitzaizkien zapatuan eskualdeko kirolariei. Ugaoko Txapeldunak taldeak bere izenari kasu egin eta lau txapel lortu zituen: Ander Uriarte, Lidia Ugalde, Ieltxu Simon eta Aitor Ugalde, hurrenez hurren, 40 kilo arteko haur, 55 arteko kadete eta 65 eta 85 arteko senior mailetan. Yin-Yang talde arabarrak berdindu zuen, haiek ere lau txapelen jabe egin baitziren. Itxaso

Neira, Ion Perez, Diego Tobarra eta Iñigo Gonzalez nagusitu ziren 55, 60, 75 eta 80 kilo arteko senior kategorietan. Bestalde, 70 kilo arteko senior mailako finala atzeratu zuten lesio batengatik. Alex Henderson Abadiñoko Femmack taldekoaren eta Txapeldunetako Joseba Ugaldere artean izan behar da. Azkenik, Urdulizko Basakick taldea ez zen gustura gelditu epaileen lanagaz: «Erik Susunagak argi irabazi zuen, eta galtzaile jo zuten. Poker aurpegia gelditu zitzaigun». ◀



Mundu mailan jarraitzaile asko du Light Contactek. CC-BY ERIC LANGLEY

Trapagarango bikotea, harriak zulatzen onena Astrabuduan ere

Ezustekorik ez zen izan domekan Astrabuduan, Bikoteen Arteko Bizkaiko Harri-zulatzailen Txapelketan. Trapagarango Oskar Laso eta Iker Reyero Euskal Herriko txapeldunek erabateko nagusitasunez lortu zituzten txapelak, 12 zulo eta 10,6 centimetro egin da: «oso gutxi entrenatu dugu, baina ondo egin dugu eta pozik gaude». Atzean gelditu ziren Burdin Gazteak (9 eta 12,5), Gallarta (9 eta 8,4), Errekatxo (8 zulo), Kz Kolpeka bikote mistoa (6 eta 11,3) eta Kabiezes (6 eta 3,2). Izena emanda zuen Las Carrerasesko bikoteak azkenean ez zuen parte hartu. ◀

Dozena bat domina batu dute Uribe Kostako arraunlariek Orion

Zapatuan jokatu zen Orion Euskadiko Ibilbide Luzeko Txapelketa. Uribe Kostatik Getxo, Raspas eta Arkote arraun-taldeak bertaratu eta lehiatu ziren. Parte hartu zuten 113 ontzietatik 20 izan ziren eskualdeko itsas armadetakoak. Guztira, 12 domina ekarri dituzte bueltan: hiru urrezko, zazpi zilarrezko eta brontzezko bi. Urreei dagokienez, Arkoteko beterranoek ez zuten areririk izan eta gizonezkoen 8+ domina zuzenean eskuratu zuten. Beste garaipenak Raspas taldeak lortu zituen, gizonezkoen 4x absolutuan eta emakumezkoetan hau-


rreren 2x modalitatean. Bigarren sailkapenak honako kategorietan eskuratu zituzten: gizonezko kadeteen 8+ (Getxo), 4x (Raspas B) eta 2x (Arkote). Horiekaz batera, beste lau zilar domina metatu zituzten: haur-mailako nesken skiff-a (Raspas), gizonezkoen absolutua 4- (Arkote) eta 1x (Getxo), eta mutilezko gazteen 1x (Getxo B). Azken horretan, hirugarren plaza ere eskuratu zuen Getxoko A taldeak. Raspasek 12. domina eskuratu zuen gizonezkoen haur mailako skiff ontziagaz. Kadeetee 4.000 metro egin behar izan zituzten, eta beste guztiek, 6.000 metro. ◀



Kz Kolpeka taldeak aurkeztu zuen bikote mistoa.

Sudokuak

Gogoan hartu 1etik 9ra arteko zenbaki denek agertu behar dutela zutabe,ilara eta azpilauki bakoitzean.



8	6		3			9		
						2		
					5			4
							7	
	2	1	6		8			
6					9		5	1
		9	8					6
		3	4		2			
	7						2	

3			1			4		
			4			1		3
4	8					7		
9			6		5			
	4			3				
7		3		1		9		
						6		7
			7	5	8			
				9				2

Soluzioak

2	1	5	9	6	3	4	7	8
6	4	3	8	5	7	2	9	1
7	8	9	1	4	2	6	3	5
5	9	6	4	1	8	3	2	7
1	7	8	2	3	6	5	4	9
4	3	2	5	7	9	8	1	6
9	6	7	3	2	5	1	8	4
3	5	1	7	8	4	9	6	2
8	2	4	6	9	1	7	5	3

8	2	3	1	6	5	9	7	4
7	6	5	2	9	7	3	8	1
6	4	1	7	3	8	6	5	2
1	5	8	9	7	2	4	3	6
9	3	4	8	5	9	1	7	2
2	7	6	3	4	1	8	6	5
4	6	7	5	8	9	2	1	3
3	8	2	6	1	7	5	4	9
5	1	9	4	2	3	7	6	8

Horoskopoa



Ura (Abenduak 21-Urtarrilak 19)

Egitea kostatu zaizuna kontuan hartuta, pena bat da mozorroa egun bakarrean soilik ateratzea plaza-
ra. Jarraitu festaz festa!



Otsoa (Urtarrilak 20-Otsailak 18)

Amamak beti arrazoi. Badakizu. Eta zenbat izorra-
tzen zaituen onartzeak! Behingoagatik onartu ondo
esan dakoak.



Adarra (Otsailak 19-Martxoak 20)

Ikusten ez denak ez du minik eragiten, bai, egia da.
Baina zure aurrean gertatzen denean begiak atza-
marrez estaltzeak ez dizu laguntzen.



Aitzurra (Martxoak 21-Apirilak 19)

Zabal dezakezu irribarrea ezkerretik eskuinera:
hainbeste denbora jo eta ke aritu ondoren, orain
lortzera zoaz. Zorionak!



Hostoa (Apirilak 20-Maiatzak 19)

Inork ez zintuen San Valentin egunean deitu, baina
zuri, bost. Doazela pikutara bitxi-denden eta mer-
kataritza-guneen egun horregaz!



Eguzkia (Maiatzak 20-Ekainak 18)

Zergatik ospatu behar dituzu Aratusteak soilik zure
herrian? Hartu garraio publikoa, eta hurbildu festa-
ra, barre egitera.



Garia (Ekainak 19-Uztailak 18)

Gozoena aukeratzen ohi duzu, baina ez dakizu zer-
gatik, egunotan besteagaz zaude gustatuta. Dena
da proba egitea.



Lastoa (Uztailak 19-Abuztuak 17)

Horoskopoko honek inoiz ez duela asmatzen pen-
tsatzen ibili zara azken asteotan. Eta orain zer? Zer
esan behar duzu?



Iratzea (Abuztuak 18-Irailak 16)

Barikuan beste urte bat beteko da «Euskaldunon
Egunkaria» isilarazi zutenetik. Erabat aurka zaude,
baina, zer egiten duzu euskal prentsaren alde?



Meta (Irailak 17-Urriak 16)

Kirola osasungarria dela esaten dute, baina beti
neurritz. Hartu lasai, eta beste zaletasun ei ere eman
ieziaezu aukeraren bat: mundu oso bat dago.



Hazia (Urriak 17-Azaroak 15)

Osasuna, maitasuna eta lana dituzu kezka-iturri
lantzean behin. Ez ito horiekaz, bestela ere badira
hamaika arazo munduan.



Negua (Azaroak 16-Abenduak 20)

Hilabete falta da Korrika heltzeko, eta oraindik ezin
duzu 100 metroko lasterketa egin birikiak seko gel-
ditu barik. Hasi entrenatzen!

Bilbao Orkestra Sinfonikoa eta hiruka ren ekimenez

Elgar, eta Brahmsen 4.a
entzunaldirako sarrera bikoitz bi zozketatuko ditugu

Otsailaren 26ko ala 27ko emanaldia aukeratu beharko duzue.

Kontzertuaz gozatu gura baduzu, astelehena baino lehenago,
helarazi zure izen-abizenak eta harremanetarako bide bat hona:

hiruka@hiruka.eus
944 911 337

Informazio gehiago:
hiruka.eus/zozketak



Bilbao Orkestra
Sinfonikoa



Betiko ikastola

50 urtez ezina ekinez egina



Ikasturtearen amaieragaz batera, maiatzaren 23an, egingo dute urteurrenaren ospakizun handia Leioako ikastolako ikasle, ikasle ohi, guraso eta langileek. Aurreko egunean sortzaileak omenduko dituzte.

KEPA UGARTE MARTIARENA

Aurten 50 urte beteko dira zenbait guraso eta lagun euskaltzalek hamaika ikasleko talde bat osatu eta Areetako etxebizitza bateko gelan eskolak ematen hasi zirela. Erronka ez zen makala. Ingurunea erdalduna zen, eta, euskara irakastearekin batera, irakaskuntza bera euskaraz egitea posible zela frogatu behar zuten. Gainera, baliabide denak gaztelania hutsean zeuden. Beranduago, 1993ko Euskal Eskola Publikoaren Legea onartu zenean, gatazka oso gogorra bizi izan zuten, bitan banatu arte. Gurasoetako batzuk orduko Gobela ikastola zena publiko egitea erabaki eta izena bereganatu zuten. Beste aita-ama batzuek, oster, izanari eutsi zioten, Leioako Artatza auzoan altxatutako «betiko» geratu ziren eta ikastolen mugimenduaren hezkuntza-proiektuarekin jarraitu zuten. Bada, azken horiei eta ikastolaren bultzatzaileei eskerrak eman gura dizkie Betiko ikastolak, zilarrezko esteiak ospatzeko ekitaldien bitartez. Horiek guztiak «ezinak eginak bihurtu» dituzte, bertoko ikasle izandako lagunek osatutako Izenik Ez taldeak egindako *Lumak astindu* abestiaren bertsioan entzun daitekeen moduan. Gaur egun 0 eta 16 urte arteko 567 neska-mutil dabilta Betiko ikastolan ikasten, DBHko laugarren mailara arte.

Mende erdia ospatzeko ekitaldiak abenduan egindako prentsaurrekoan eman zituzten ezagutze-

ra Koldo Tellitu Leioako Betiko ikastolako lehendakariak eta Blanca Lazkano zuzendariak. Daborduko joan zaizkigu urtarilaren 10eko Kirol Eguna eta otsailaren 8ko Txitxiburduntzi Jaia. Baina, maiatzaren 23a heldu artean, badago zertaz gozatu. Otsailaren 28an, zapatua, kanta-poteoa eta afaria egingo dituzte. Hitzordua 18:00etan jarri dute Itzubaltzetako

**Euskal Eskola Publikoaren
legearen ondorioz, zati bat
publiko egin zen Gobela
izenagaz, eta Betiko sortu zuten**

Santa Eugenia plazan. Martxoaren 13an, oster, *Txo, Mikmak txikia* ikuskizuna eskainiko dute Kandela-zubideta kiroldegian Pirritx, Porrotx eta Mari Motots pailazo ezagunek. Bi saio egongo dira: 17:00etan eta 19:30ean. Sarrerak salgai daude 10 euroan Leioako Betiko, Sopelako Ander Deuna eta Algortako San Nikolas ikastoletan.

Apirilera helduta, hilaren 20an, neska-mutilentzako hainbat tailer egingo dituzte, pintura eta makillajea tartean. Hilaren 27ari dagokionez, ikastolaren historia erakutsiko dute argazkien bitartez. Baina 50.



urteurrena ospatzeko egun handia maiatzaren 23an egingo dute ikasturte bukaera aprobetxatuta. Gauza handirik ezin izan dute aurreratu oraindino Betikotik. Ziurtatu dutenez, kirolak, dantza eta musika egongo dira. Aurreko egunean, maiatzaren 22an, ikastolaren sortzaileei gorazarre egingo diete.

Areetatik Leioara

Historia kontuetara bueltatuz, Areetako etxebizitzako gela txiki geratu zitzaien laster Betikoren aitzindari. Ikastolaren berri etxetik etxe zabaltzen zihoan eta, herritarrek emandako erantzuna handia izan zenez, Itzubaltzeta / Romoko San Jose elizako sotoetara joan behar izan zuten eskolak ematera. Geroago, Gobela kaleko 16 eta 18 zenbakien artean zegoen txalet bat alokatu, egokitu eta txukundu zuten, eta 1968an, asko kostata, legeztapena lortu zuten.

Baina, 1971n Hezkuntza Erreforma iritsi zen, hau da, Oinarrizko Hezkuntza Orokorra (OHO). Eta txaletean ez zegoen eskatzen ziren baldintzak betetzerik, berbarako gela eta jolaslekuen neurriak. Hala, Algortako San Nikolas ikastolaren filiala izatea erabaki zuten. Txaletean OHOk laugarren mailara artekoa egiten zen, eta Algortara joaten ziren bosgarren mailatik aurrera. Baina arazoa ez zen espazioa bakarrik; dirua arazoa ere bazen. Kuotak errazteko zenbait bide erabiltzen zituzten: besteak beste, uda osoan garagardotegi bat zabaltzen zuten ikastolan bertan. 1978an txaleta ere txiki geratu zitzaien eta Areetako kultur etxeko geletara joan ziren hiru ikasle-talde.

Aurrera egiteko eraikin berri baten beharra zegoen. Hori egiteko, lurak erosi zituzten Leioako Artatza auzoan. 1980an bukatua zegoen eraikina, eta OHO osoa ematen zen bertan, Algortarekiko menpe-



kotasuna hautsiz. 500 ikasle baino gehiago izatera iritsi ziren orduan.

Zatiketatik loraldira

Betikokoen ustez, 1993an onartutako Euskal Eskola Publikoaren legeak helburu argia zeukan: «ez zen edukia jorratzea, ikastolak Eskola Publikoan sartzea eta mugimendua desagitea baizik». Gatazka oso gogorra bizi izan zen 1994-1995 urteetan. Ondorioz, zati bat publiko egin zen Gobela izenagaz, eta ikastolekiko lotura guztiak eten zituen. Bestalde, Betiko ikastola sortu zen Artatzako eraikinean. Leioa aldean 150 ikaslerekin baino ez ziren geratu. Kalteak kalte, Derriгорrezko Bigarren Hezkuntza (DBH) ezartzeko ez zen inbertsiorik egin beharrik izan, ikastolan toki

Gaur egungo eta 16 urte arteko 567 neska-mutil ikasten dabiltza Betikon, haurtzaindegian hasi eta DBHra heldu arte

nahikoa baitzegoen. Bestalde, haurtzaindegia zabaldu zuten. Egoera horretan zeudela, 1997an Ibilaldia Bizkaiko ikastolen aldeko jaia antolatzea eskatu zuten, baita eskuratu ere. Horren bitartez, «Betiko» izena ezagutzera ematea lortu zuten eta, diruarekin, zatiketa garaian Betikoren izenean geratutako zor historikoa arindu zuten.

Gainera, Ibilaldiaren ondoren, aurreko urteetan beharera zihoan matrikulazio kopuruari buelta ematea lortu zuten: besteak beste, 1995-1996 urteetan jaiotako ikasleetatik aurrera gelako 20 ikasleko

hesia gainditzea lortu zuten, Betiko bi lerrotako ikastola bihurtzeko aukera emanez. 2002-2003 ikasturtean etorriko ziren ikastolaren eraikinaren eta lurren jabeak izatea, haurtzaindegi osoaren subentzioa eta 2004ko Ibilaldiaren antolaketa eskuratzea. Orduan 300 ikasle baino gehiago izatera heldu ziren, eta frontoiaren proiektua ere martxan zegoen.

Azpiegiturak

Azpiegitura egokiak ezinbestekoak dira kalitatezko hezkuntza eskaintzeko, Betikokoen ustez. Hala, frontoi-kiroldegi estalia eraiki zuten 2003ko azaroan, euren aspaldiko ametsa eta beharra. Izan ere, ikastolan pilota eta kirola indartzeaz gainera, estalitako gun bat izatea ekarri zuen, bai Heziketa Fisikoa, bai eskolaz kanpoko ekintzak egiteko. Bereziki garrantzitsu suertatu da frontoia eguraldi txarra denean, haurrak bertan jolastu ahal izateko, ikastolakoek airtortzen dutenez. Inaugurazio-ekitaldi ofiziala 2003ko azaroaren 19an egin zuten, beste askoren artean Anjeles Iztueta Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza sailburua bertan zela.

2005tik aurrera, oster, gelak eta solairu berria guztiz beharrezkoak ziren, Haur Hezkuntzan ematen ari zen matrikulazio-handitzeari aurre egiteko. Handitze horrek Hezkuntzako Lehen Zikloan hirugarren lerroa ezartzea behartu zuen, eta 3, 4 eta 5 urtekoen geletan kontzertatutako bigarren lerroa izatera ere eramane zuen. 2006ko abenduaren 16an inauguratu zuten bigarren lerroa egokitzeko solairu berria, Koldo Tellitu Betikoko presidentea zela. Urte horietan Haur Eskolako eta bigarren eraikineko gela guztiak egokitu eta bereizi zituzten. Gaur egun 567 ikasle dauzka Leioako Betiko ikastolak. ◀



Ekitaldiak

Otsailak 28, zapatua

18:00 Itzubaltzeta/Romoko Santa Eugenia plaza

Kanta-poteoa Txapela Bat musika taldeak lagunduta. Ondategi, Gure etxea, La mona eta Andros tabernetatik igaro ondoren, 22:00etan afaria egingo dute Betiko ikastolan

Martxoak 13, barikua

17:00 eta 19:30 Leioako Kandelazubieta kiroldegia

Pirritx, Porrotx eta Marimototsen Txo, Mikmak txikia ikuskizuna. Sarrerak salgai daude 10 euroan Leioako Betiko, Sopelako Ander Deuna eta Algortako San Nikolas ikastoletan

Apirilak 20, astelehena

Haurrentzako tailerrak, makillajea eta pintura tartean

Apirilak 27, astelehena


Ikastolaren historiari buruzko argazki erakusketa

Maiatzak 22, barikua

Ikastolako sortzaileei omenaldia

Maiatzak 23, zapatua

Ikasturte amaierako jaia: kirol erakustaldiak, dantza eta musika



Mundukatuak

Irati Arretxe Ortiz de Urbina Algortarra

«Kakao-krema barik kakahuete-gurina dute»

Unibertsitate-ikasketak amaituta, amari kasu egin eta AEBetako Colorado estatua joan zen Irati Arretxe Ortiz de Urbina, zehazki Fort Collins hirira. Master bat ikastera abiatu zen. Aurretik bere osaba zazpi urtez egon zen AEBetan. Daborduko sei hilabete pasa dira Artetxe heldu zenetik; ez du damurik, baina «Gabonetan etxean egon ostean, hona bueltatzea askoz zailago egin zait». Haatik, algortarrak ez du baztertzaren egonaldia luzatzea. Bitartean, 2016an hasiko da lanean, gaztelaniazko klaseak ematen unibertsitatean. Horrek eta euroaren deflazioak bermatuko diote apartamentuko alokairu «nahiko garestia»-ri aurre egitea. Beste bi ikaslegaz bizi da. Bakoitzak 500 euro ordaintzen ditu.

Jan eta edana

Fort Collinsen «denetarik» jaten dute, kultur dibertsitatea gastronomian ere

islatzen da. Berezitasun gisa aipatu daitezke *Thanksgiving Day* edo Esker Emate Eguneko indioilarra; eta kakao-krema barik kakahuete-gurina dutela. Supermerkatuetan ere denetarik dago, gauza bakoitzeko hamaika aukera. Os-

**“Disneylandeko
etorbide nagusia
Fort Collinsen
inspiratuta dago”**

tatuetan, mundu osoko jakiak daude, baina *Fast Food* edo janari azkarra egiten dutenak dira nagusi: «ez da oso garestia etxetik kanpo jatea, baina kalitatea ere ez da onena». Edateko «badago herrian giro-gunea, Oldtown edo Downtown deritzona, eta hantxe daukagu gehienak». Bariku eta zapatuetan 21 urtetik gorakoak hara doaz.

Goizeko 1:30ean ixten dituzte denak. Maiz, etxeetan egiten dira festak, baina goizeko zetan amaitzen dituzte. Bixia dirudi ere, Disneylandeko etorbide nagusia Fort Collinseko Oldtown horretan inspiratuta dago.

Zer ikusi

Fort Collinsek leku miresgarriak ditu: Rocky Mountains mendietako parke naturalak zein eskiatzeko pistak, milaka eta milaka jende erakartzen dituztenak; edo Horsetooth Reservoir mendebaldeko lakua. *Show* kulturen, Denver Broncos-en amerikar futbol partidak sekulako ikuskizunak dira. Halere, Arretxek gogoan duen eguna da «gehien gustatzen» zaion Berri Txarrak taldea Fort Collinsen bertan diskoa grabatzen zegoela jakin, estudiara bertaratu eta haiekin solasean luze aritu zenekoa, Euskal Herriatik 8.000 kilometrora. ◀

NOR DA

Nongoa

Algortakoa

Adina

22 urte

Zertan dabil

Espainiera masterra ikasten

Ikasketak

Lehen Hezkuntza gradua (Gorputz Hezkuntza)

Noiz arte Coloradon?

Printzipioz, 2016ko ekainera arte dauka pentsatuta gelditzea, baina, beharbada, beste urtebete geratuko da bertan lanean

NONGOA DA



Lurraldea

AEBko Colorado estatua

Azalera

269.837 km²

Hiria

Fort Collins

Biztanleria

152.000

Hizkuntzak

Ingelesa da hizkuntza hegemonikoa. Halere, %30ek baino gehiagok espainolez badaki. Jatorri alemaneko kolonia ere handia da, bertako natiboen ondorengoen baino gehiago. Azken horiek %1 basterik ez dira egun, Apatxe eta Arapaho naziokoak, batez ere. Horrez gain, biztanleriaren %10 bestelako gutxiengo etnikoek osatzen dute.

Dirua

Dolar estatubatuarra

HIRUKA Koop. elk.

Helbidea: Martikoa 16, 2. solairua 48991 GETXO

e-Posta: hiruka@hiruka.eus

Posta Kutxa: 171

Telefonoa: 944 911 337

Erredakzioa: Iker Rincon, Kepa Ugarte, Julen Nafarrate, Iñigo Fernandez de Martikorena, Irantzu Sagaminaga

Argazkiak:

Hodei Torres

Disenua: Jorje Perez eta Eñaut Etxebarri

Sustapena: Erika Martinez eta Zortza Merino

Filmazioa eta Inprimategia: BEPSA

Lege Gordailua: BI-2022-2014

ISSN: 2386-98-95

CC-BY-SA

Erakunde laguntzaileak:



Hedabide honek Bizkaiko Foru Aldundiaren eta Eusko Jaurizarren diru-laguntzak jasotzen ditu